


EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO
ERAGINAREN EBALUAZIOA

HEZKUNTZAN



2021

Izenburua: "Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa hezkuntzan"

Editorea: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier 36. 01005 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Red2Red

Data: 2021eko uztailen eguneratua

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA	4
2. GENERO ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK	7
2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN	7
2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK	22
2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA .	25
2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA	30
2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK	36
3. LEGEDIA	39
4. DATU-ITURRIAK.....	41
5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK	45

1. TESTUINGURUA

Hezkuntza, gizakion eskubidea den aldetik, ezinbesteko faktore bat da pertsonen zein gizarteek ekonomikoki eta sozialki aurrera egin dezaten. Hezkuntzara erabateko sarbidea izatea eta hori berdintasun-baldintzetan baliatzea ezinbesteko betekizun bat da emakumeak ahalduntzeko eta oinarritzko tresna da genero-berdintasuneko eta gizarte-garapeneko helburuak lortzeko.

Helburu horrekin, azken hamarkadetan neska gazteak eta emakumeak modu orokortuan sartu dira hezkuntza-sisteman, nazioarteko, Europa mailako, Estatuko zein EAEko legediak aitortu eta bermatu duenez.

XX. mendearen 70eko hamarkadara arte sexuz bereizitako eskola zen eredu pedagogiko nagusia, eta, errealitate hartan, emakumeak hezkuntza-espazioetara iristea ez zen autonomia pertsonala edo aukera-berdintasuna lortzeko bide bat; aitzitik, emakumeei tradizionalki esleitutako rola (seme-alabak izatea eta zaintza-lana) hobetzeko modu bat zen; bada, errealitate hura gainditu egin dugu.

Hezkuntzari eta Hezkuntza Erreformaren Finantzaketari buruzko abuztuaren 4ko 14/1970 Legeak, artean diktadura frankistaren esparruan, eskolaratze mistoa onartu zuen, eta sexuaren arabera ez diskriminatzeko eta aukera-berdintasunerako printzipio formala txertatu zuen. Horren haritik, berdintasun formala ezarri zen neskek zein mutilak hezkuntzara sarbidea izateari zegokionez; izan ere, harrezkero batzuek zein besteek eskola-curriculumak, irakasleak, eskolako espazioak, ikaskuntza-irakaskuntzako prozesuak eta metodoak edota jolasak, besteak beste, partekatu zituzten.

Gerora, hezkuntzaren esparruko eta/edo hezkuntza-sistema erreformatzeko lege guztiek arrakastaz bultzatu eta sustatu dute emakumeek hezkuntzara sarbidea izatea. Testuinguru horretan, nabarmendu behar da aipatu beharreko Estatuko lege-erreferentzia nagusiak honako hauek direla: 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubidea Arautzekoa; 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzakoa; 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko; 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21koa, Unibertsitateena; 4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzekoa; eta 5/2002 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa.

Bidenabar, EAEko testuinguruan honako hauek dira nabarmendu beharreko lege-erreferentziak: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa; 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa; eta 3/2004 Legea, otsailaren 25koa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

Gaur egun ikus dezakegun errealitateak edo egoerak –oro har– erakusten digu gizonak baino emakume gehiago daudela derrigorrezko ikasketen ondorengo batxilergoko eta unibertsitate-mailako ikasketetan; aitzitik, gizonak baino nabarmen emakume gutxiago daude Lanbide Heziketan. Emakumeak maila guztietara masiboki iristea (irakaskuntza eta ikerkuntza barne, desberdintasun nabarmenak dauden arren) eta hezkuntza-arloan berdintasun juridikoa egotea lagungarria izan da orokorrean sinets dezagun esparru honetan nesken eta mutilen artean aukera-berdintasun erreala lortu dela. Neskek emaitza hobek lortzen dituztela eta eskola uzteko tasa txikiagoa dutela adierazten duten datuek ere lagundu dute irudi horretan, baita tradizionalki karrera «maskulinozat» jotako ikasketetan gero eta neska gehiago egoteak ere (baina neurri txikiagoan).

Hainbat txosten ofizialetan adierazi da hezkuntza-sistemaren erregulazioa (eskola-curriculumak, hainbat ikasketen ikasketa-planak, material pedagogikoak eta irakaskuntza-metodologiak, ikastetxeetako eta zerbitzueta-antolaketa-jarraibideak, eskola-ordezkagarritasuna, eta abar onartzea) «neutroa» dela, besterik gabe, neskek zein mutilek irakaskuntzara sarbide berdina izatea bermatzen delako eta, *de facto*, desberdintasunak gaindituta daudela. Izan ere, «populazio osoaren onurarako pentsatuz eta posizio ekonomiko, politiko eta sozialean dauden genero-desparekotasunak kontuan hartu gabe diseinatutako arauak ezin dira neutroak izan, baizik eta itsuak generoari dagokionez».

Lorpenak aitortu arren, egia da era berean aitortu dezakegula gaur egun hezkuntza-sisteman desparekotasunak oraindik mantentzen direla eta desparekotasun horiek kontuan hartu behar direla hezkuntza-administrazioek estatututako arauak eta legediak prestatzerakoan, baita arau horiek garatu eta aplikatzean ere.

Illo beretik, ez da lortu sexuaren ondoriozko diskriminazioa desagerraraztea modu integralean landuko duen hezkidetzak-eredu bat finkatzea, nesken eta mutilen aspirazio-esparruetan, berdintasun- eta aniztasun-balioak modu orokor eta sakonean onartzean, eta, gainera, berdintasunean eta genero-berdintasunerako hezkuntza lortzeko ikasleen eskubideak beteko dituenak.

Horrez gain, oraindik badaude berez diskriminatzaileak diren antolaketa- eta irakaskuntza-moduak, balioak, lengoia, erreferenteak, kultura eta egiturak; «maskulinoak» erreferentzia unibertsal gisa hartzen dute eta neskek eta mutilek oso txikitatik modu berezian sozializatzen dituzte, alegia, batzuegan eta besteengan espektatiba desberdinak jartzen dituzte genero-rolak bereganatzeari, prestakuntza-hautuei, eskolako jardunari, hezkuntza-ingurunean ondo konpontzeari eta bestelakoei dagokienez.

Bestalde, emakumeek eta gizonak parte-hartze desberdina dute oraindik ere erabakiguneetan, irakasleen artean hezkuntza-mailaren arabera, irakasle eta ikertzaileen artean irakaskuntza-adarraren arabera, eta abar.

2014ko abenduan argitaratutako gidan definitu zen moduan, horrek guztiak etorkizunerako lan-lerro argi bat definitzen jarraitzen du EAEko zein Estatuko hezkuntza-agintarientzat; hala, berdintasunaren arloan indarreak dagoen legediak ezarritako aginduak betez, hezkuntza-eredu ez sexista eta ez lerratu bat bultzatu behar dute dimentsio guztietan (eskola-curriculum, antolaketa, material didaktikoak eta abar) eta hezkuntza-maila guztietan; indarkeria-jokabideak eta emakumeen aurkako indarkeria saihestuko dituen ereduak izango da, emakumeek modu aktiboan eta aukera-berdintasunean jardungo dute esparru guztietan, erabaki-guneetan barne, prestakuntza egokia jaso duten langileekin; azken finean, benetako hezkidetzarantz abiatuko den ereduak izango da.

2. GENERO ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

Hezkuntzaren esparruan, bizitza ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalaren gainerako esparru gehienetan bezalaxe, desberdintasunak daude emakumeen eta gizonen artean. Desberdintasun horiek hainbat faktoreren emaitza dira; horien artean sozializazio-prozesuan tradizionalki pertsoneri eman zaizkien genero-rol eta estereotipoei lotutakoak nabarmendu behar dira. Emakumeen eta gizonen sozializazio bereziak ondorio zehatzak ere baditu hezkuntza-esparruan, presentziaren eta parte-hartzearen inguruabarretan zein baliabideetara sarbidea izateari dagokionez.

Testuinguru horretan, hezkuntzaren esparruan emakumeen eta gizonen presentzia eta parte-hartze desberdinari dagokionez kontuan hartu beharreko lau giltzarri definitu dira:

- a) hezkuntza-mailetara duten sarbidea, desberdina derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapetan.
- b) ibilbide akademiko desberdinak izatea.
- c) generoaren arabera egindako prestakuntza-hautuak.
- d) irakasleen segregazio horizontala Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, eta segregazio batez ere bertikala unibertsitate-etapako irakasle eta ikertzaileen artean.

a) Sarbidea hezkuntza-mailetara

Gizartearen bilakaerak berak eta araudi-esparrua horretara egokitzeak ekarri du emakumeak hezkuntza-sistemara aukera berdinekin gehitzea; hala ere, errealitateak erakusten du, oro har, mailakako eta ezagutza-arloen araberrako sarbidea eta parte-hartzea desberdinak direla eta, besteak beste, genero-rolek baldintzatzen dituztela.

Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ez da parte hartzean desberdintasun nabarmenik antzeman, eta ez dirudi genero-rol edo aginduek eskolaratze-sarbidea baldintzatu edo alboratu dutenik, bai, ordea, errealitate demografikoak. Horrenbestez, neska eta mutilen proportzioa orekatua da, 2019-2020 ikasturteko datuek erakusten duten gisan, maila orokorrean zein lurralde historikoetan.

Hezkuntza Berezian, Haur Hezkuntzan emakumeen ehunekoa ingurune orekatuan dagoen arren, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ehuneko horiek beherakada arina daukate. Desgaitasun-egoerak gehiago agertzen dira mutilen kasuan nesken kasuan baino, eta izan daiteke egoera neurri handi batean horrek azaltzea. Bidenabar, adierazi behar da Lehen Hezkuntza Berezian eta DBHn emakumeen proportzioa txikiagoa izan dela 2019-2020 ikasturtean 2011-2012 ikasturtearekin alderatuta (aurreko gida argitaratu zenean); Lehen Hezkuntza Berezian ehunekoa % 34,4tik % 27,6ra jaitsi da, eta % 36,7tik % 32,7ra Bigarren Hezkuntza Berezianaren kasuan.

1. taula. Ikasleak Oinarrizko Hezkuntzan, EAEn. 2019-2020 ikasturtea

Ikasleak Oinarrizko Hezkuntzan, EAEn. 2019-2020 ikasturtea	Guztira	Emakumeak	%
HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA			
Haur Hezkuntza	85.239	41.434	48,6
Haur Hezkuntza Berezia	39	20	51,2
Lehen Hezkuntza	130.041	62.953	48,4
Lehen Hezkuntza Berezia	419	116	27,6
BIGARREN HEZKUNTZA			
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	86.304	41.861	48,5
Hezkuntza Berezia (DBH)	422	138	32,7

Egileek egina, Eustaten Eskola Jardueraren Estatistika oinarri hartuta (2021).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan agertzen dira lehenengo desberdintasunak, eta sarbide berezia nabariagoa da, hautatutako irakaskuntza-motan zein batzuek eta besteek aukeratutako ezagutza-arlo edo adarretan; hautu horiek, hain justu ere, lan-mundura iristea eta bertan parte hartzeko trantsizioa eta baldintzak ebazten dituzte.

2. taula. Ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan, EAEn. 2019-2020 ikasturtea

Ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan, EAEn. 2019-2020 ikasturtea.	Guztira	Emakumeak	%
Oinarrizko LH	4.700	1.297	27,5
Batzilergoa	31.234	17.080	54,6
Erdi-mailako LH	15.102	5.230	34,6
Goi-mailako LH	21.016	7.990	38

Egileek egina, Eustaten Eskola Jardueraren Estatistika oinarri hartuta (2020).

Aurreko taulan ikus daitekeen moduan, 2019-2020 ikasturteko EAeko datuen arabera neskek Batxilergoko prestakuntza-ibilbideak aukeratzeko joera handiagoa dute mutilek baino (% 54,6 eta % 45,3); aurkakoa gertatzen da, neurri txikiagoan, Lanbide Heziketako ikasketen kasuan, argi eta garbi maskulinizatuta baitaude, erdi-mailakoen kasuan zein goi-mailakoen kasuan (emakumeen parte-hartzea % 34,6 eta % 38 da, hurrenez hurren).

Bilakaera-datuei erreparatuz ikus daiteke, gainera, Batxilergoan emakumeen ehunekoak igotzen jarraitzen zuela, 2011-2012 ikasturtean % 51,5 izatetik 2019-2020 ikasturtean % 54,6 izatera igo baita; erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketan, berriz, behera egin du. Hala, 2011-2012 ikasturtean emakumeen proportzioa % 37,1ekoa eta % 41ekoa izan zen, hurrenez hurren, eta 2019-2020 ikasturtean, ostera, % 34,6koa eta % 38koa, hurrenez hurren.

Horrez gain, nabarmendu behar da DBHko titulua lortu ez duten pertsonen bideratutako oinarrizko LHn bildu zela gizonen ehunekorik handiena (% 72,4) 2019-2020 ikasturtean; ez da desberdintasunik antzeman aurreko datuei dagokionez (2011-2012 ikasturtekoak). Datu horiek lotura dute ikasleen errendimendu akademikoarekin eta ikasketak aprobetxatzearekin; sistematikoki okerragoa da mutilen kasuan, eta eskola goiz utzi eta porrot egin duten mutilen proportzioak neskena gainditzen du. Hala, Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren datuen arabera, 2019an 18 eta 24 urte arteko EAEko gazteetatik hezkuntza-prestakuntza goiz utzi zutenen¹ % 4,3 neskek ziren, eta % 9,1, mutilak.

Testuinguru horretan, aipatu behar da, oro har datu positibo modura, eskola goiz uzten dutenen ehunekoek nabarmen egin dutela behera 2011. urtearekin erkatuta, orduan 18 eta 24 urte arteko mutilen kasuan ehuneko hori % 13,5ekoa baitzen, eta % 12,5ekoa adin-tarte bereko nesken kasuan.

Lurralde historikoen arabera Batxilergoko ikasketak egiten dituzten emakumeen proportzioa antzekoa da (% 50etik gorakoa hiru kasuetan). Erdi-mailako LHn emakumeen ehunekorik handiena Araban dago (% 37,73), eta baxuena Gipuzkoan (% 33,8), baina Bizkaiako datuarekin nahiko parekatuta (% 34,2). Goi-mailako LHn ere, emakumeen ehunekorik handiena Araban dago (% 38,5), eta baxuena Gipuzkoan (% 34,5). Bizkaiaren kasuan, emakumeen ehunekoa % 37,4 da.

Oinarrizko LHri dagokionez, berriz ere Araba da emakumeen proportziorik handiena duen lurralde historikoa (% 30,6); Gipuzkoa eta Bizkaia, % 25ko eta % 28eko datuekin, hurrenez hurren.

Eskolatzetasei erreparatuz gero (hezkuntza-maila bateko ikaskideen eta teoriarik maila horretan ikasteko adinean dagoen populazio osoaren arteko harremana erakusten du), esan daiteke tasa horietan zenbait genero-arrakala antzeman daitezkeela.

¹ Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa bukatu ez duten eta inolako hezkuntza-prestakuntzarik egiten ez duten 18 eta 24 urte arteko populazioaren ehunekoa.

3. taula. Hezkuntza-mailen araberako eskolatzetasa gordinak EAEn, sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea.

Hezkuntza-mailen araberako eskolatzetasa gordinak EAEn, sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea	Emakumeak	Gizonak	E-G aldea
Haur Hezkuntza	78,7	80,1 8	-1,4
Lehen Hezkuntza	101,5	102,5	-1
DBH	101,5	102,4	-0,9
Batxilergoa	85,8	67,3	18,5
LH	28,1	48,2	-20,1
Goi-mailako ikasketak	67,7	65,5	2,1

«Zifrak 2020 txostena. Emakumeak eta gizonak Euskadin», Emakunde.

Hala, eta aurreko taulan ikus daitekeen moduan, aukeratutako ikasketa motan generoaren araberako segregazioa argi dago derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapetatik, bai Batxilergoan, bai, batez ere, Lanbide Heziketan. Hala, neskek batxilergoa modu masiboan aukeratzen dute: batxilergoa egiteko adinean dauden nesken % 85,8k, eta mutilen % 67,3k. Maila horretan, nesken eta mutilen arteko aldea ehuneko 18,5 puntukoa da; alde hori handiena da lanbide-heziketan, mutilen % 48,2k egiten baitu, eta nesken % 28,1ek. Eskolatzetasa gordinen bilakaera-analisiak erakusten duenez, aldaketarik handiena unibertsitate-eremuan gertatu da: 1998/1999 ikasturtean, eskolatzetasa gordinak erdiak baino txikiagoak ziren emakumeen eta gizonen kasuan, eta, 2019an, emakumeen kasuan, bi herenak baino gehiago ziren, eta balio horretara hurbildu dira gizonen kasuan.

Nolanahi ere, garrantzitsua da aipatzea sexua ez dela hezkuntza-sistemaren mailetan eskolatzean eragina duen aldagai bakarra. Hala, adibidez, jatorri geografiko edo kulturala, jatorrikoa edo erreferentziakoa, errenta-mailak edo familiarren eta ingurunearen hezkuntza-mailak eta maila sozialak ere hezkuntza-sistemaren irakaskuntzetan eta etapetan sarbidea izatean eragina izan dezaketen faktoreak dira.

Horren haritik, hezkuntza-etapetan ikasleek parte hartzeko edo sarbidea izateko dituzten baldintzak, familien baldintza sozioekonomikoak eta bestelakoak aztertuko dituzten ikerketetan, aldizka edo *ad hoc* egindakoak, faktore horiek jasotzearen alde egin behar da, eta genero-aldagaiak beste faktore horietan duen eraginari buruzko datuak lortzearen alde.

Goi-mailako ikasketen kasuan eta, zehazki, unibertsitateko ikasketen kasuan, nabarmendu behar da, oro har, emakumeak unibertsitateira iristea eta bertan duten presentzia arrakastatsua dela ikasketa-maila guztietan, lehengo lizentziatura eta diplomaturetatik hasi eta gaur egungo gradu, master eta doktoregoko ikasketetara arte.

Datuek erakusten dute emakumeen presentzia pixka bat handiagoa dela unibertsitate-arloan; hala, EAEko unibertsitateko populazioaren % 54 emakumeak dira.

4. taula. Unibertsitate-ikasketetan matrikulatutako ikasleak EAEn, ikasketamailaren eta sexuaren arabera. 2019-2020 ikasturtea.

Unibertsitate-ikasketetan matrikulatutako ikasleak EAEn, ikasketamailaren eta sexuaren arabera. 2019-2020 ikasturtea	Guztira	Emakumeak	%
Graduak	57.534	31.475	54,7
Master ofizialak	6.230	3.167	50,8
Doktoregoak	4.473	2.218	49,5
Unibertsitate-populazioa, guztira	68.237	36.860	54,0

Egileek egina, Eustaten Unibertsitatearen Estatistika oinarri hartuta (2021).

Hala ere, zehaztu behar da unibertsitate-mailako ikasketetan generodesberdintasunak ez direla horrenbeste gertatzen emakumeek eta gizonen ikasketa horietara duten sarbidean eta parte-hartzean; aitzitik, batzuek eta besteek aukeratutako ikasketa-motetan gertatzen da gehiago, aurrerago sakonago aztertuko dugun moduan.

Unibertsitate-eremutik kanpo, jarraian **Helduen Hezkuntzari (HHE)** buruzko datuak eskainiko dira. Horrelako irakaskuntza-motari dagokionez, lehenengo eta behin aipatu behar da bertan matrikulatutako ikasleen bolumenak, oro har, behera egin duela 2010-2011 ikasturteetik hona. Hala, 2010-2011 ikasturtean, 29.679 pertsona matrikulatu ziren, eta 2011-2012 ikasturtean 19.591; 2019-2020 ikasturtean, berriz, 13.240 matrikulazio izan ziren. Hala ere, nabarmena da Helduen Hezkuntzan erregistratutako % 10eko igoera, azken lau ikasturteetako beherazko joera lehengoratzen baitu. 2019-2020 ikasturte honetan matrikulazioen sexuen arabera banaketa ia orekatua da: matrikulazioen % 51,6 sexu bakoitzeko.

Azkenik, zenbait datu eman behar dira analfabetismo-zifrei dagokienez; oro har beherantz egiten jarraitu badu ere –ehunekoak gero eta txikiagoak dira eta ohikoagoa da pertsona nagusien kasuan–, emakumeen kasuan datuak altuagoak dira. Hala, eta 2019. urteari buruzko Eustaten datuen arabera, Euskadin analfabetismoaren tasarik handienak 65 urtetik gorako adin-tarteetan jaso ziren, eta neurri handiagoan emakumeen kasuan. Hala, 65-69 urte arteko taldean emakumeen analfabetismo-tasa % 0,3koa izan zen, eta gizonena, berriz, % 0,2koa. 70 eta 74 urte arteko tartearen analfabetismo-tasa % 0,6koa da emakumeen kasuan, eta % 0,3koa gizonen kasuan; 75 urtetik gorako adin-tartean tasa horiek gora egiten dute: emakumeen kasuan % 1,9 eta, gizonen kasuan, berriz, % 0,7.

b) Ibilbide akademikoa

Hezkuntzaren esparruan generoaren ikuspegitik antzeman daitekeen bigarren dimentsioa oraindik ere ikasleen ibilbide akademiko-profesionalak dira. Datu estatistikoek berresten dute nesken errendimendu akademikoa altuagoa dela mutilena baino irakaskuntzaren maila guztietan, baina berresten dute, halaber, errendimendu handiago hori ez dela nahitaez islatzen lan-merkatuan aukera handiagoak edo hobeak izatean, edo emakumei aitorpen profesional handiagoa egitean.

Horren haritik, PISA txostenek erakutsi dute **neskek eta mutilek errendimendu desberdina dutela trebetasun desberdinetan**. PISA txostenaren (Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa, 2019) Estatuko emaitzen arabera, neskek mutilek baino errendimendu askoz ere hobeak daukate irakurmenean, eta, neurri txikiagoan, mutilek errendimendu hobeak daukate matematiketan; hala ere, argi geratzen da bi sexuen arteko aldea matematiketan kasuan murriztu egin dela txostenaren aurreko edizioarekin erkatuta. Zientzien arloko errendimenduan ez dago bi sexuen arteko alde esanguratsurik. EAEko emaitzak aztertuz gero, nesken irakurketako errendimendu handiagoa oraindik esanguratsua da, baina ez dago alde handirik bi sexuen artean matematiketan kasuan eta, gainera, neskek emaitza askoz hobeak lortzen dituzte zientzietan.

Alderdi batzuetan errendimendu-patroi desberdinak izatearen azpian mota askotako kausak egon daitezke: sozializazio-prozesu bereizien inpaktua, aspirazio-esparru desberdinak, ingurune sozioekonomikoa, jatorrizko edo erreferentziako testuinguru geografiko edo kulturala, eta abar. Nolanahi ere, argi dago errendimendu akademikoaren eredu horiek, *a posteriori*, prestakuntza-hautuetan ere inpaktua dutela eta, neurri berean, baita pertsonen lan-merkatuko sektore baterantz edo beste baterantz jotzeko orientazio profesionalean ere, ondorioak izanik, horrenbestez, laneratzean, errentan, enpleguaren kalitatean, eta abar.

EAEko ikasle-populazioaren eskola-errendimenduari dagokionez, dagoeneko aipatu ditugun eskolatzeko-tasen datuak osatzeko hezkuntza-mailak bukatu dituzten ikasleei buruzko datuak har ditzakegu hizpide.

5. taula. EAEEn maila bakoitza bukatu duten DBHko ikasleak, sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea

EAEn maila bakoitza bukatu duten DBHko ikasleak, sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea.	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E-G aldea
Lehenengo maila	95,4	91,7	3,7
Bigarren maila	92,8	87,5	5,3
Hirugarren maila	94,0	89,2	4,8
Laugarren maila	95,0	91,5	3,5
Guztira (batez beste)	94,3	89,9	4,4

Egileek egina, Eustaten Unibertsitatearen Estatistika oinarri hartuta (2021)

Hala, DBHn, EAEn ikasturtez ikasturte neskak adin bereko mutilak baino neurri handiagoan promozionatzen dira, batez beste % 4,4ko proportzioan; horrez gain, 2010-2011 ikasturtearekin alderatuta, proportzio horiek 2018-2019 ikasturteko antzeko neurrietan mantendu dira.

6. taula. Batxilergoko maila bakoitza bukatu duten ikasleak EAEn, sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea

Batxilergoko maila bakoitza bukatu duten ikasleak EAEn, sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea.	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E-G Aldea
Lehenengo maila	93,1	90,6	2,5
Bigarren maila	93,1	89,9	3,2
Guztira (batez beste)	93,1	90,3	2,8

Egileek egina, Eustaten Unibertsitatearen Estatistika oinarri hartuta (2021)

Halaber, Batxilergoan, EAeko neskak mutilak baino neurri handiagoan promozionatzen dira, gutxi gorabehera batez beste % 3ko ehunekoan; 2010-2011 ikasturtearekin alderatuta, ikasturte honetan mutilen eta nesken arteko distantzia ia puntu batean murriztu da.

gutxi gorabeherako batez besteko portzentaje batean,

Halaber, EAEn ikasleen egokitasun-tasei eta ikasle errepikatzaileen ehunekoei buruzko estatistikek berretsi egiten dituzte kasu guztietan mutilek jardun okerragoa izateari buruzko datuak, adina edo ikasten ari diren irakasmaita edozein dela ere.

7. taula. EAEn ikasle errepikatzaileen ehunekoa, hezkuntza-mailaren eta sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea.

EAEn ikasle errepikatzaileen ehunekoa, hezkuntza-mailaren eta sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea.	Guztira	Emakumeak	Gizonak	E-G aldea
DBH	5,7	4,3	6,9	-2,6
DBH 1	6,6	5	8	-3,0
DBH 2	6,3	4,9	7,6	-2,7
DBH 3	6	4,6	7,3	-2,7
DBH 4	3,5	2,6	4,4	-1,8
Batxilergoa	5,5	4,5	6,7	-2,2
Batxilergoko 1. maila	3,8	3,3	4,4	-1,1
Batxilergoko 2. maila	7,4	5,8	9,2	-3,4
Erdi-mailako LH	15,3	10,4	18,0	-7,6
Goi-mailako LH	13,2	10,0	14,9	-4,9

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Neskek mutilek baino errepikapen-tasa txikiagoak dituzte hezkuntza-etapa guztietan, eta alde horiek txikiagoak dira Lehen Hezkuntzan (etapa horretan, gainera, tasak txikiagoak dira) eta Batxilergoan. Kontrako egoera gertatzen da Erdi Mailako Lanbide Heziketan; izan ere, errepikapen-tasarik handienak izateaz gain (% 15,3), nesken (% 10,4) eta mutilen (% 18) errepikapen-tasetan alderik handienak agertzen ditu.

Egokitasun-tasan ere (adinez dagokion mailan matriculatuta dauden ikasleen ehuneko gisa ulertuta) ikasle neskek egokitasun handiagoa daukate dagozkien hezkuntza-mailetan, derrigorrezko hezkuntzaren barruan.

8. taula. EAEn egokitasun-tasa, sexuaren eta adinaren arabera.

EAEn egokitasun-tasa, sexuaren eta adinaren arabera. 2019-2020 ikasturtea.	Guztira (%)	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	E-G aldea
7 urte	96,5	96,9	96,1	0,8
9 urte	92,2	93,3	91,1	2,2
11 urte	88,9	90,8	87,0	3,8
12 urte	87,8	90,0	85,7	4,3
13 urte	84,2	87,0	81,5	5,5
14 urte	80,2	83,8	76,7	7,1
15 urte	74,4	79,1	69,9	9,2
16 urte	70,9	77,4	64,9	12,5
17 urte	64,4	72,3	56,4	15,9

Egileek egina, Eustaten Eskola Jardueraren Estatistika oinarri hartuta (2021).

Taulan ikus daitekeen moduan, adinak gora egin ahala, maila egokian dauden eta, horrenbestez, errepikatu ez duten nesken proportzioa handiagoa da mutilena baino adin guztietan.

Emakumeen jardun hobea unibertsitatera sartzeko probei buruzko datuetan ere ikus daiteke. Hala, EAeko ikasle neskek neurri handiagoan aurkezten dira aipatutako azterketetara, eta emaitza hobek lortzen dituzte mutilek baino.

9. taula. EAEn unibertsitatera sartzeko proben emaitzak, lurraldeen eta sexuen arabera. 2019. urtea.

EAEn unibertsitatera sartzeko proben emaitzak, lurraldeen eta sexuen arabera. 2019. urtea.						
	Emakumeak			Gizonak		
	Ikasle neskek % (guztia dagokionez)	Gaindituen %	Batez besteko nota	Ikasle mutilak % (guztia dagokionez)	Gaindituen %	Batez besteko nota
Araba	55,9	96,7	7,3	44,1	97,8	7
Bizkaia	53,4	97,3	7,3	46,6	97	7
Gipuzkoa	54,6	98,2	7,3	45,4	97,1	7
EAE	54,2	97,5	7,3	45,8	97,2	7

Egileek egina, Eustaten Unibertsitatearen Estatistika oinarri hartuta (2020).

Taulan ikus daitekeen moduan, 2019an unibertsitatera sartzeko probetara aurkeztutako EAeko nesken ehunekoa % 54,2 izan da, eta mutilena, % 45,8; nesken batez besteko nota mutilena baino 0,3 puntu handiagoa izan da. Gainditutako ikasleen ehunekoen artean ez dago alde handirik (neskak % 97,5 eta mutilak % 97,2). Lurralde historikoen arabera, emakumeak proba horietara gehien aurkeztu diren EAeko probintzia Araba da (% 55,9), eta gainditutako neska gehienaren ehunekoak Gipuzkoan izan da (% 98,2). Aitzitik,

EAE osoko mutilen ehunekorik handiena Bizkaian aurkeztu da probetara (% 46,6), eta mutil gehien gaitzen duten lurraldea Araba da (% 97,8).

Neskek hezkuntza-jarduera hobeto aprobetxatzen duten datu horren gaineko irakurketa genero-ikuspegitik eginez gero, argi ikusten genero-sozializazioaren bitartez espektatibak eta rolak esleitzen direla, eta hainbat ikerketetan ere horrela jaso da: neskengandik askotan espero da ikasle finak izatea, ikasketetan gogorrago saiatzea, eta lanean zorrotzagoak izatea; hortaz, esleitzen zaizkien jokabide horien emaitza natural gisa eta haiengandik espero dena da errendimendu akademiko hobea izatea. Mutilei lotutako espektatiba eta rolen inpaktuaren inguruan galdetu beharko genuke, kasu honetan, gainera, dirudienez eragin negatiboa duelako jardun eta emaitza akademikoetan.

c) Prestakuntza-hautuak

Hezkuntza-sistema genero-ikuspegiarekin aztertze honako hau da giltzarrietako bat. Derrigorrezko ikasketen ondorengo irakaskuntzetan, emakume eta gizonen presentzia ezagutza-arloetan desberdina da; izan ere, neskek oraindik ere emakumeei tradizionalki neurri handiagoan lotutako prestakuntza-ibilbideak edo ikasgaiak aukeratzen jarraitzen dute, «femeninoagotzat» jotakoak (Humanitateak, Gizarte Zientziak, eta abar), eta mutil gazteek gizonen tradizionalki eta neurri handiagoan lotutako gaiak eta diziplinak aukeratu ohi dituzte, «maskulinoagoak» (zientziak, Matematika, Teknologia, eta abar).

Logikoa denez, hainbat faktorek baldintzatzen dituzte prestakuntza-ibilbideen hautuak. Neskek eta mutilek joera dute beren hautuak genero-estereotipoetara eta sexu bakoitzarentzat gai, ona edo egokia dela uste den horretara moldatzeko, eta horrek hein handi batean beren interesak, zaletasunak eta joerak zehazten ditu. Hautu horretan pisu handia daukate parekoen taldearen (adiskideen) eraginak, familiaren itxaropenek eta proiektioek, irakasleek, eta pertsona horrek, emakumezkoa nahiz gizonzkoa izan, bere buruaz, bere gaitasun eta trebetasunez eta eskola-arrakasta lortzeko duen motibazioaz dituen eta garatzen dituen kontzeptuek.

Faktore horiek guztiek lehenengo hautuak baldintzatzen dituzte, lehenago komentatu dugun moduan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoren jarraitu beharreko irakaskuntza-motei dagokienez: EAEko neskek neurri handiagoan erabakitzen dute hezkuntza-ibilbidean jarraitzea eta Batxilergoa egitea Lanbide Heziketa ikastea baino; azken hori, aurreko datuetan ere ikusi den moduan, irakaskuntza maskulinizatua da.

10. taula. Batxilergoan matrikulatutako EAeko ikasleak, modalitatearen eta sexuaren arabera (bi mailak). 2019-2020 ikasturtea.

Batxilergoan matrikulatutako EAeko ikasleak, modalitatearen eta sexuaren arabera (bi mailak). 2019-2020 ikasturtea.	Guztira	Emakumeak	%
Arteak	1.186	871	73,4
Humanitateak eta Gizarte Zientziak	12.554	7.607	60,5
Zientziak	16.938	8.305	49,0
Ikasleak, guztira	30.678	16.783	54,7

Egileek egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen estatistika oinarri hartuta (2021)

Batxilergoko ikasketetan zenbait alde antzematen dira prestakuntza-hautuetan. Aurreko taulak erakusten duen moduan, EAEn 2019-2020 ikasturtean Batxilergoa ikasi zuten neskek gehiago dira, proportzioan, mutilak baino (% 54,7). Batxilergo-motei erreparatuz, nabarmendu behar da Arte Batxilergoaren modalitatean, oro har, gutxiago aukeratutako modalitatea den arren, nesken parte-hartzea askoz handiagoa dela ehunekoetan (modalitate horretan guztira matrikulatutako pertsonetatik % 73,4 neskek dira). Bigarren postuan Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa dago; kasu horretan neskek hartzen dituzte matrikula guztien % 60,5. Azkenik, nabarmendu behar da Zientzien Batxilergoan matrikula guztien % 49,0 emakumeen matrikulak direla.

Datu horiek 2010-2011 ikasturteko datuekin erkatuz gero, nabarmendu behar da Arte Batxilergoan matrikulatutako nesken ehunekoak gora egin duela % 64,8tik % 73,4ra, eta gainerako modalitateetan ia-ia berdin mantendu direla.

Araubide bereziko irakaskuntzei buruzko datuek ere (hor sartzen dira Dantza, Arte Dramatikoa, Musika, kirol-ikasketak, eta abar) segregazio horizontalaren joera bera jarraitzen dute.

11. taula. Araubide bereziko irakaskuntzan matrikulatutako ikasleak EAEn, modalitatearen eta sexuaren arabera. 2019-2020 ikasturtea.

Araubide bereziko irakaskuntzan matrikulatutako ikasleak EAEn, modalitatearen eta sexuaren arabera. 2019-2020 ikasturtea.	Guztira	Emakumeak	%
Dantza	137	131	95,6
Arte plastikoak eta diseinua	584	433	74,1
Hizkuntzak	26.537	17.083	64,3
Arte dramatikoa	55	31	56,3
Musika	2.646	1.458	55,1
Kirolekoak	572	151	26,3
Araubide bereziko ikasketak (guztira)	30.531	19.287	56,8

Egileek egina, Hezkuntza Sailaren estatistika oinarri hartuta (2021)

Taulan ikus daitekeen moduan, Hizkuntzen irakaskuntza da araubide bereziko irakaskuntzako ikasleek gehien erabiltzen duten modalitatea, eta horri dagozkio matrikulazio guztien % 86,9. Modalitate guztietan emakumeak

ikasleen erdiak baino gehiago dira, Kiroletan izan ezik, horietan ikasleen % 26,3 baino ez baitira. Egoera horren kontrakoa Dantzan gertatzen da, modalitate horretan ikasleen % 95,6 emakumeak baitira.

Genero-arrazoien ondoriozko prestakuntza-hautuak are argiagoak dira **Lanbide Heziketako** ikasketetan; izan ere, lehenago esan dugun moduan, emakumeek ikasleen proportzio nabarmen txikiagoa hartzen dute (erdi-mailako LHn % 34,6 eta goi-mailako LHn % 38, zehazki 2019-2020 ikasturtean).

Hala, **erdi-mailako LHn**, 2019-2020 ikasturtean, Eustaten datuen arabera, emakumeen presentzia handiagoa daukaten eta argi eta garbi feminizatutako bost espezialitateak honako hauek dira: Irudi pertsonala (% 88), Gizarte eta kultura zerbitzuak (% 80,3), Osasungintza (% 75,7) eta Administrazioa eta kudeaketa (% 60,5). Adar horiek esan daiteke gizarteak tradizionalki emakumeei esleitutako rol eta betebeharrak betikitzen dituztela, hain zuzen ere seme-alabak eduki eta zaintza-lanari eta lanaren banaketa sexualari dagokionez. Aitzitik, parte-hartzea txikiagoa da espezialitate zientifiko-teknikoetan edo tradizionalki ez horren («femeninotzat») jotako beste espezialitate batzuetan; hala, ikasle neska gutxien matrikulatuta dituzten bost titulazioak honako hauek dira: Garraioa eta ibilgailuen mantentze lanetan % 3,7, Instalatze eta mantentze lanetan % 4,1, Elektrizitatea eta elektronikan % 4,5, Fabrikazio mekanikoan % 5,4 eta Itsasoa eta arrantzan % 5,9.

Goi-mailako LHko ikasketetan 2018-2019 ikasturtean nesken parte-hartzea ia puntu bat igo zen, erdi-mailako LHko datuekin erkatuta (% 35,8ra arte), eta espezialitate zehatz batzuetan, Eraikuntza eta obra zibilen kasuan esaterako, ia 20 puntu igo zen parte hartzea, edota 15 puntu Arte grafikoen kasuan. Hala, bada, espezialitate batzuetan presentziak hobekuntza arina izan duen arren, emakumeen proportzioak nabarmen txikiagoa izaten jarraitzen du adar maskulinizatuenetan: Itsasoa eta arrantzan % 2,6, Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanetan % 4,1, Instalatze eta mantentze-lanetan % 6,1, Elektrizitate eta elektronikan % 7,5, eta % 8,1 Energia eta uran.

Kasu batzuetan titulazio feminizatuagoak eta ez hain feminizatuak aldatu egin dira 2011-2012 ikasturteari buruz emandako datuekin alderatuta; hala ere, nabarmendu behar da zenbait titulazioaren feminizazio- eta maskulinizazio-joera ez dela aldatu, eta ez da aldatu, ezta ere, titulazio horien eta gizartean tradizionalki gizonari eta emakumeei emandako betebeharrak eta rolen arteko harremana.

Prestakuntza-hautuen beste fase bat **unibertsitateko ikasketak** egiteko erabakietan gertatzen da, eta prestatzeko aukeratutako ezagutza eta espezializazio-arloetan.

12. taula. Unibertsitate-ikasketetan matrikulatutako EAEko ikasleak, sexuaren eta adarren arabera. 2019-2020 ikasturtea.

Unibertsitate-ikasketetan matrikulatutako EAEko ikasleak, sexuaren eta adarren arabera. 2019-2020 ikasturtea.	Guztira	Emakumeak	%
Osasun-zientziak	8.969	6.892	76,8
Arteak eta Humanitateak	6.189	3.883	62,7
Gizarte eta Lege Zientziak	33.005	19.533	59,2
Zientziak	4.312	2.185	50,6
Ingeniaritza eta Arkitektura	15.762	4.367	27,7
Ikasleak, guztira	68.237	36.860	54,0

Egileek egina, Eustaten Unibertsitatearen Estatistika oinarri hartuta (2021).

Hautu-adarren arabera unibertsitate-ikasketetan matrikulatutako EAEko ikasleen datuek berresten dute ia ezagutza-adar guztietan emakumeen presentzia handiagoa dela, % 50etik gorakoa (% 54 batez beste), Ingeniaritza eta Arkitekturaren adarraren kasuan salbu; kasu horretan parte-hartzea % 27,7koa baita. Aitzitik, Osasun-zientzien adarrean emakumeen presentzia % 76,8koa da, eta Arteak eta Humanitateak adarrean, berriz, % 62,7koa. Adar teknikoen eta osasun- eta gizarte-motako adarren arteko itxurazko dikotomia bat dator tradizionalki gizonei eta emakumei emandako genero-rolekin.

Datuok 2011-2012 ikasturteko datuekin konparatuz gero, nabarmendu behar da emakumeen proportzioak ia berdin jarraitu duela Arteak eta Humanitateak, Osasun-zientziak eta Ingeniaritza eta Arkitektura ikasketetan; behera egin du Gizarte eta Lege Zientziak eta Zientzien ikasketetan, azken kasu horretan neurri handiagoan.

Titulazioen araberrako emakumeen eta gizonen presentzia sakonago aztertuz gero, eta 2019-2020 ikasturteko datuen arabera, titulazio feminizatuen artean, % 80tik gorako presentziarekin, Haur Hezkuntza (% 88,2), Pedagogia (% 84,9), Erizaintza (% 84) eta Itzulpen-gintza eta Interpretazioa (% 81,5) daude. Aitzitik, titulazio maskulinizatuen artean daude Automobilgintzaren Ingeniaritza (% 95,6), Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza (% 83,6), Informatika Ingeniaritza (% 85,6) eta Ingeniaritza Mekanikoa (% 83,0). Eskarretako desberdintasunak, berriro ere, genero-rol eta estereotipoek nesken eta mutilen prestakuntza- eta lanbide-hautuetan duten inpaktua islatzen du.

Ingeniaritzen titulazioen kasua bereziki nabarmendu behar da; izan ere, EAEn ingeniaritza-ikasketak egiten dituzten ikasleen % 26 baino ez dira emakumeak. Ingeniaritzako titulazioetan ikasle emakumeak ez daude behar adina ordezkatuta, eta hurrengo taulan jaso da, matrikulatutako emakume kopuru handienak dituzten titulazioak aztertuz.

13. taula. Ingeniaritzetan matrikulatutako emakumeen ehunekoa, titulazioaren eta sexuaren arabera. 2019-2020 ikasturtea

Ingeniaritzetan matrikulatutako emakumeen ehunekoa, titulazioaren eta sexuaren arabera. 2019-2020 ikasturtea.	Guztira	Emakumeak	%
Ingeniaritza Kimikoa	333	169	50,7
Industria Antolaketako Ingeniaritza	644	304	47,2
Ingeniaritza Zibila	378	131	34,6
Industria-teknologiako Ingeniaritza	1420	421	29,6
Telekomunikazioen Ingeniaritza Teknikoa	380	107	28,1
Ingeniaritza Mekanikoa	2118	359	16,9
Informatika Ingeniaritza	1.141	161	14,1
Ingeniaritzako ikasleak, guztira (titulazio guztiak)	11.318	2.938	26

Egileek egina, Eustaten Unibertsitatearen Estatistika oinarri hartuta (2021).

Ikus daitekeen moduan, sexuen araberako banaketa orekatua da Ingeniaritza Kimikoan (% 50,7 emakumeak) eta, neurri txikiagoan, Industria Antolaketako Ingeniaritzan (% 47,2); aurkakoa gertatzen da izaera tekniko-teknologikoagoa daukaten ingeniaritzen kasuan, esaterako Informatika Ingeniaritzan (% 14) edota Ingeniaritza Mekanikoan (% 16,9).

Datuek erakusten dutenez, neskek, oro har, bokazio zientifiko-teknologiko txikiagoa erakusten dute, eta horretan ezinbesteko eragina dauka, besteak beste, genero-rolak onartu eta betetzeak, neskek duten autopertzepzio okerragoak haien gaitasun matematikoei eta zientifikoei dagokienez eta esparru horretan dauzkaten aukeren inguruko motibazioak, baita irakasleen artean emakume erreferenterik ez izateak ere.

d) Segregazioa irakasleen banaketan

EAEko hezkuntzan emakumeen eta gizonen presentziari buruzko analisiaren azken dimentsioak irakasleen egoera izango du hizpide. Lehenago esan dugun moduan, azken hamarkadetan emakumeak masiboki iritsi dira irakaskuntzaren esparrura, harik eta, oro har, esparru feminizatu bihurtzeraino. Hala ere, baieztapen orokor horri hainbat ñabardura egin behar zaizkio, kasu bakoitzean aztertutako irakaskuntza-motaren, ezagutza-arloaren eta kategoria profesionalen arabera.

Datuen analisiak hiru fenomeno jartzen ditu oraindik ere agerian: lehenengoa, emakumeen proportzioa irakasleen artean handiagoa dela beheko mailetan, eta behera egiten duela hezkuntza-mailak gora egiten duen neurrian; bigarrena, emakume irakasleen banaketa aldatu egiten dela ezagutza-arloaren arabera, eta presentzia eta parte-hartze baxuagoa dutela arlo zientifiko-teknikoetan (segregazio horizontala); eta, azkenik, irakasle emakumeek neurri txikiagoan hartzen dituztela irakaskuntzaren kategoria gorenak (segregazio bertikala), gizonei baino gehiago kostatzen baitaie erantzukizun handiagoko postuetara iristea.

14. taula. Irakasleak EAEn. Emakumeen ehunekoa hezkuntza-mailaren arabera. 2019-2020 ikasturtea.

Irakasleak EAEn emakumeen ehunekoa hezkuntza-mailaren arabera. 2019-2020 ikasturtea.	Guztira	Emakumeak	%
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza			
Haur Hezkuntza	9.525	8.764	92
Lehen Hezkuntza	12.020	9.563	79,9
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	11.308	7.571	66,9
Batxilergoa	5.555	3.544	63,7
Lanbide Heziketa (LH)	4.325	1.975	45,6
Helduen Hezkuntza (HHE)	627	436	69,5
Unibertsitate-ikasketak	5.957	2.774	46,5
Arte plastikoak eta diseinua	81	51	62,9
Hizkuntzak	369	288	78,0
Musika	599	306	51,1
Dantza	31	19	61,2
Kirolekoak	67	6	8,9

Egileek egina, Eustaten Eskola Jardueraren Estatistika oinarri hartuta (2021).

Aurreko taulan irakasleen feminizazio altua ikus daiteke Haur eta Lehen Hezkuntzan; bidenabar, ikus daiteke nola proportzio horrek behera egiten duen egoera irauli arte unibertsitateko edo Lanbide Heziketako irakasleen artean, eremu horretan gizonak neurri handiagoan hartzen baitute parte baita irakaskuntzaren arloan ere. Hortaz, Haur eta Lehen Hezkuntzako mailetan ez dago ia gizonetako erreferenterik neskato eta mutikoentzat, eta horrek ere lagundu egiten du zaintza-lana oraindik ere gizonekin neurri txikiagoan eta emakumeekin neurri handiagoan lot dezagun; hala, zailtasunak sortzen dira tartean erantzunkidetasuna bezalako kontzeptuak lantzeko edo, are gehiago, gaur egun dauden zigor sozialak ikusita, zaintza-lana gizarte guztiaren oinarriko lan gisa aldarrikatzearen inguruan lan egiteko.

2019-2020 eta 2011-2012 ikasturteetako datuak erkatuz gero nabarmendu behar da, datu esanguratsu modura, Lanbide Heziketan irakaskuntza-postuak betetzen dituzten emakumeen ehunekoak igoera arina izan duela (% 42tik % 45,6era), baita unibertsitateko ikasketetan ere (% 41etik % 46,5ra).

Bidenabar, eta araubide bereziko ikasketei dagokienez, nabarmendu behar da banaketa bereziki segregatua dela hizkuntzen eta kirolen kasuetan; hain zuzen ere, kasu horietan irakasle emakumeen ehunekoak % 78,0 eta % 8,9 dira hurrenez hurren.

Segregazio horizontal hori ez da hain agerikoa unibertsitateetako irakasleen artean Euskal Herriko Unibertsitatean irakaskuntza-adarren arabera banaketa aztertzerakoan, Ingeniaritza eta Arkitektura adarraren kasuan salbu, kasu horretan irakasle eta ikertzaile emakumeen ehunekoa % 33,5koa baita, hurrengo taulako datuek erakusten duten gisan:

15. taula. UPV/EHUko irakasleak eta ikertzaileak, irakaskuntza-adarraren eta sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea.

UPV/EHUko irakasleak eta ikertzaileak, irakaskuntza-adarraren eta sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea	Guztira	Emakumeak	%
Gizarte eta Lege Zientziak	1.416	759	53,6
Osasun-zientziak	959	484	50,5
Arteak eta Humanitateak	468	217	46,4
Zientziak	605	271	44,8
Ingeniaritza eta Arkitektura	928	311	33,5
Guztira, irakasleak eta ikertzaileak	4.384	2.044	46,6

Egileek egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Unibertsitateetako Langileen Estatistika oinarri hartuta (2020).

Aurreko taulan ikus daitekeen moduan, irakasle eta ikertzaile diren emakumeen ehunekoa % 50etik gorakoa da soilik Gizarte eta Lege Zientzien adarrean, baita Osasun-zientzien adarrean ere, baina oso gutxigatik.

Segregazio bertikalari dagokionez, unibertsitateko kolektiboen osieran genero-arrakala nabarmendu egiten da analisia kategoría akademikoen arabera eginez gero, hurrengo taulan argi ikus daitekeen moduan.

16. taula. UPV/EHUko irakasleak eta ikertzaileak, kategoriaren eta sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea.

UPV/EHUko irakasleak eta ikertzaileak, kategoriaren eta sexuaren arabera.	Guztira	Emakumeak	%
Ikertzaileak	1.154	591	51,2
Unibertsitateko titularra	912	409	44,8
Irakasle ikertzaile iraunkorra	60	29	48,3
Unibertsitate Eskolako titularra	221	101	45,7
Unibertsitate Eskolako katedraduna	15	5	33,3
Unibertsitateko katedraduna	371	96	25,9
Emeritua	20	3	15

Egileek egina, UPV/EHUko kategoriaren arabeko irakasle eta ikertzaileak oinarritzat hartuta (2020).

Ikertzaileen kasuan bakarrik da emakumeen ehunekoa % 50etik gorakoa. Unibertsitateko titularren, irakasle ikertzaile iraunkorren eta Unibertsitate Eskolako titularren kategorietan, oreka-ingurune batean egon arren, ehunekoak ez dira % 50 horretara iristen. Irakasle katedradunen kasuan (unibertsitatekoak edo unibertsitate-eskolakoak), ehunekoak nabarmen baxuagoak dira: % 25,9 eta % 33,3, hurrenez hurren. Presentzia minoritario horrek argi erakusten du emakumeek zailtasun gehigarria daukatela kanon estandarraren arabera ordezkagarritasun eta prestigio handiagoko postuak lortzeko hezkuntza-sektorean.

2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

Hezkuntzan ageri diren emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunek, dimentsio guztietan, lotura zuzena dute baliabideetan parte-hartze desberdina izatearekin, hala ulertuta, lehenik eta behin, lan-merkatuara sarbidea izatea eta bertan lan egiteko baldintzak, eta, bigarrenik, hezkuntza-lanbideari dagokion aintzatespen sozialaren eremuan, azken kasu honetan hausnarketa modura.

a) Hezkuntza-arrakasta, enplegura sarbidea eta lan-merkatuan parte hartzeko baldintzak

Aurreko ataletan aurkeztutako datuek erakutsi dutenez, oro har, emakumeek emaitza akademiko hobeak lortzen dituzte hezkuntzaren maila guztietan, eta altuagoak dira bai egokitasun-tasak (gutxiagoetan errepikatzen dute), bai graduazio-tasak (ikasketak neurri handiagoan bukatzen dituzte dagokien denboran), bai azterketa ofizialeko jarduna. Hala ere, ikasketa- eta lan-trantsizioen errealitateak erakusten du emakumeek, bukatutako ikasketa-maila gorabehera, egoera berean dauden gizonen baino eragozpen eta oztopo gehiago topatzen dituztela lana lortzeko, eta beren lan-baldintzak ere txarragoak izan ohi direla.

Bukatutako ikasketa-mailen arabera EAEko emakume eta gizonen **okupazio- eta jarduera-tasei** dagokienez, Eustaten 2019ko Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestak (BJA) erakutsi zuenez, okupazio- eta jarduera-mailak nabarmen egiten dute gora hezkuntza-maila areagotzen den neurrian, emakumeen zein gizonen artean.

17. taula. 16 urteko eta gehiagoko EAEko biztanleen okupazio- eta jardueratasak, bukatutako ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera. 2020. urtea.

16 urteko eta gehiagoko EAEko biztanleen okupazio- eta jarduera-tasak, bukatutako ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera. 2020. urtea.	Emakumeak	Gizonak	E-G aldea
Jarduera-tasak	51,6	60,8	-9,2
Lehen mailako ikasketak eta gutxiago	27,0	46,0	-19
Bigarren mailako ikasketak eta erdi-mailakoak	52,1	60,5	-8,4
Goi-mailako ikasketak	80,3	79,4	-0,9
Okupazio-tasak	45,7	54,2	-8,5
Lehen mailako ikasketak eta gutxiago	22,0	40,4	-18,4
Bigarren mailako ikasketak eta erdi-mailakoak	45,6	52,4	-6,8
Goi-mailako ikasketak	74,7	74,4	0,3

Engileek egina, Eustaten Biztanleriaren jarduerari buruzko inkesta oinarri hartuta (2020).

Hala, unibertsitate-mailako ikasketak dituzten EAEko emakumeen okupazio- eta jarduera-ehunekoek 50 puntutan baino gehiagotan gainditzen dituzte lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen ehunekoak; gizonen kasuan ehunekoa 30 puntu pasatxora iristen da. Bi sexuen okupazio- eta jardueratasak aztertuz gero ikus daiteke 2020an emakumeen okupazio- eta jarduer-mailak gizonenak baino baxuagoak zirela ia kasu guztietan;

nolanahi ere, arrakala nabarmen baxuagoa izan zen goi-mailako ikasketak zituzten biztanleen artean.

Ikasketak-mailaren eta okupazio- eta jarduera-tasen arteko lotura hori urteetan zehar ikusi da; horrez gain, genero-arrakala ikasketak-maila guztietan murriztu den arren, esan behar da beti izan dela txikiagoa goi-mailako ikasketak izan dituzten pertsonen artean.

Hortaz, amaitutako ikasketen mailak eragina du, genero-arrakala areagotuz ala murriztuz, baina ez du hura erazte bermatzen. Ildo berean, datuek erakusten dute oro har emakumeek lan-baldintza txarragoak dituztela eta zaugarriagoak direla ezegonkortasunaren (oso fenomeno globala, bestalde) eta langabeziaren aurrean, baita goi-mailako titulazioa duten emakumeek ere.

Lanbideren laneratze-azterketek informazio gehiago eskaintzen dute goi-mailako ikasketak dituzten eta LHn graduatutako populazioaren trantsizio akademiko-laboralei dagokienez. Hala, euskal unibertsitateetan ikasketak 2016an bukatu zituzten nesken % 93 eta mutilen % 94 aktibo egon ziren 2019an. Okupazio- eta langabezia-tasak berdinak dira bi sexuen kasuan; langabeziari dagokionez % 10ekoa da, eta okupazioarena, berriz, % 90ekoa.

Ikasketak 2016an bukatu zituzten emakumeek batez beste 13 hilabete behar izan zituzten bilatzen hasi eta lehenengo enplegua aurkitu arte; hau da, gizonen baino zertxobait gehiago (12 hilabete). Hala ere, emakume horien lan-baldintzak gizonenak baino okerragoak dira: emakumeen % 24k lanaldi murriztua du, eta gizonen kasuan, berriz, % 13k (emakumeek +11 puntu), eta emakumeen % 41ek enplegu egonkorra du, gizonen kasuan, berriz, % 52 izanik² (emakumeek -11 puntu). Datu horiei gehitu behar zaie ikasketak promozio horretan bukatu dituzten gizonen emakumeek baino hileko soldata garbi altuagoa jasotzen dutela³.

Era berean, Lanbide egindako azterketa batek EAEn LHko ikasketak 2018an bukatu zituen populazioaren antzeko lan-neurketa eskaini zuen. Promozio horri dagokionez, emakumeen jarduera-tasa % 63,8 izan zen, okupazio-tasa % 80,7 eta langabezia-tasa % 19,3; horrek esan nahi du bi sexuetan jarduera-tasa antzekoa dela (% 63,7 gizonen kasuan), baina okupazio-tasa baxuagoa izan zen emakumeen kasuan (% 83,8 gizonen kasuan) eta langabezia-tasa handiagoa (% 16,2 gizonen kasuan)⁴.

Hortaz, datu horiek berretsi egiten dute trantsizio akademiko-laboralean eta lan-merkatuan bertan genero-arrakalak daudela; horrek denak emakumeek desabantaila eta zaugarritasun-egoera handiagoak dituztela erakusten du.

² Enplegu egonkorra/ enplegu osoa. Enplegu egonkorra: Norberaren kontura (autonomia edo enplegatzailea), besteren kontura kontratu mugagabearekin (edo parekoa) edo kooperatibako bazkide den pertsona landunen %.

³ Batez besteko hileko soldata garbia, 14 ordainketetan (lanaldi osoarekin).

⁴ LHko ikasketak amaitu zituzten ikasleen lan-baldintzen inguruko datuak ez daude sexuaren arabera banatuta.

b) Irakaskuntzaren feminizazioa, prestigioa eta aintzatespen soziala

Dagoeneko ikusi den moduan, irakaskuntza-lanbidean, oro har, emakumeen parte-hartzea nabarmena edo altua da, eta, gainera, hezkuntza-etapa batzuk erabat feminizatuta daude, esaterako Haur eta Lehen Hezkuntzan edo Helduen Hezkuntza eta irakaskuntza berezi batzuk, hizkuntzenak, esaterako. DBHn eta Batxilergoan emakumeak gizonak baino gehiago dira oraindik ere, % 60tik gorako ehunekoekin, baina segregazio hori arintzen ari da.

Aitzitik, gizonen parte-hartzea handiagoa da Lanbide Heziketako, unibertsitate-mailako ikasketetako eta araubide bereziko ikasketa batzuetako irakasleen artean, esaterako kirol-ikasketetan.

Hasierako etapetan (Haur eta Lehen Hezkuntza) emakumeen presentzia handiagoa izatea, irakaskuntza- eta lan-testuinguru feminizatua osatuz, ohikoa da Europar Batasuneko ia herrialde guztietan zein Batasunetik kanpo. Datu horiek azaltzeko hainbat arrazoi eman daitezke: hasierako etapetan lana sozialki zaintza-lanekin lotzea, lehenengo etapetan ordainsari baxuagoak izatea, lehen etapetako irakaskuntza-jardunak prestigio gutxiago izatearen inguruko ideia sozialak, eta abar. Edonola ere, gizonen presentzia ia hutsa da, eta Finlandia bezalako herrialdeetan, esaterako, diskriminazio positiboko ekimenak garatu dira lehenengo etapa horietan irakasle gizonen parte-hartzea sustatzeko.

Sakonean, sexu-genero sistemak alde zurretik sortutako ideia sozialek eta lanaren banaketa sexualak desprestigiatu eta gutxietsi egiten dituzte zaintza-lan horiekin neurri batean edo bestean lot daitezkeen jarduera guztiak, eta, bestalde, nolabait oraindik ere onartzen da lan horiek emakumeei «dagozkiela», gizonei baino neurri handiagoan.

2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

EAEen hezkuntzaren esparrua, aztertutako zenbait elementutan, esparru feminizatua den arren, emakumeen presentziari dagokionez, hezkuntza-sisteman inplikaturako erakunde eta entitate publiko nagusietako erantzukizun-postuen eta zuzendaritza-organoen azterketa eginez gero (ebaluazio- eta kontrol-organismoak barne), ikus daiteke postu horietan emakumeen ordezkagarritasuna oraindik ere behar adina baino txikiagoa dela. Horrek ondorioak eragiten ditu hezkuntza-agendan eta hezkuntzan emakumeen eta gizonen berdintasunari dagozkion giltzarrietan eragiteko gaitasunean.

a) Zuzendaritza-kargu publikoak eta organo betearazle eta/edo aholku-emaileak

XII. legegintzaldi honetan **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila** gizon batek zuzentzen du; sail horretan, Hezkuntza sailburuordea emakumea da, eta Administrazio eta Zerbitzuen, Lanbide Heziketako eta Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak gizonak dira. Maila bat beherago, sei zuzendari nagusi emakumeak dira, eta bost, berriz, gizonak⁵.

Bidenabar, hezkuntzaren esparruan kontsulta egiteari eta erabakiak hartzeari lotutako organismoetan botere- eta ordezkagarritasun-instantzia nagusiak aztertzea ere interesgarria da.

Oro har, **Euskadiko Eskola Kontseiluan** lehendakaria emakumea da, lehendakariordea emakumea da eta idazkari teknikoa emakumea da. Batzorde Iraunkorrean 11 kide daude, eta horietako 7 emakumeak dira (% 63,6)⁶.

EAEko Lanbide Heziketako ikasketetan lau organismo garrantzitsu daude; organismo horien sexuen araberako banaketa jaso da jarraian, 2020ko abenduan eguneratu ahal izan direnen kasuan:

- **Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua**⁷ Hezkuntza sailburuak zuzentzen du (gizona). Batzorde Iraunkorrean Eusko Jaurlaritzako hainbat sailerako zazpi ordezkari, Confedebako zazpi ordezkari, sindikatuaren zazpi ordezkari, ikastetxe publikoen bi ordezkari eta itunpeko ikastetxeen bi ordezkari daude. Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua osatzen duten pertsonetatik 8 emakumeak (% 29,6) dira eta 19 gizonak.
- **Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua (IVAC-EEI)** gizon batek zuzentzen du eta zuzendaritza-taldean 4 pertsona daude, presidentea barne; horietatik kide bakarra da emakumea (% 25). Talde teknikoan 5 kide daude, eta horietako 2 emakumeak dira (% 40)⁸.

⁵ 2020ko azaroko datuak, hemendik hartuak: <https://www.irekia.euskadi.eus/eu>

⁶ 2020ko irailean hartutako datua, hemendik hartuak: <https://consejoescolardeeeuskadi.hezkuntza.net/eu/osaketa>

⁷ Datuok Hezkuntza Saileko Berdintasun Unitate Administrazioak eskainitakoak dira. 2020ko azaroko datuak, hemendik hartuak: <https://ivac-eei.eus/eu/nor-gara.html>

- Bestalde, **Euskadiko LHren Ikerketa Aplikatuko Zentroak (Tknika)** zuzendari gizona du, eta sei eremutan artikulatzen da, horietako bi emakumeek koordinatzen dituzte, eta gainerako lau eremuak gizonak zuzentzen dituzte. Taldean proiektuak dinamizatzen dituzten 36 pertsona daude, eta osatera ia parekidea da.
- Azkenik, **Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak** emakume bat du kalitatearen arloko koordinatzaile-lanak egiten eta gizon bat gaitasuna ebaluatzeko arloaren koordinatzaile-lanetan.

Unibertsitate-mailako ikasketetan, errektore titulua duten hiru profesionaletatik bi gizonak dira, eta bat emakumea.

18. taula. EAEko unibertsitateen errektoretzak, idazkaritza nagusiak eta zuzendaritza-kontseiluak, sexuaren arabera, 2020. urtea.

EAEko unibertsitateen errektoretzak, idazkaritza nagusiak eta zuzendaritza-kontseiluak, sexuaren arabera, 2020. urtea.						
	Errektoretza	Idazkaritza Nagusia	Zuzendaritza-kontseiluak			
			Emakumeak	%	Gizonak	%
Euskal Herriko Unibertsitatea ⁹	Emakumea	Gizona	7	50	7	50
Mondragon Unibertsitatea ¹⁰	Gizona	Emakumea	2	28,6	5	71,4
Deustuko Unibertsitatea. ¹¹	Gizona	Emakumea	4	25	12	75

Iturria: Egileek egina, unibertsitateen webguneetan eskuragarri dauden datuak erabiliz.

Unibertsitate-mailetan beste erakunde batzuetan gertatzen den segregazio bertikala errepikatzen da; izan ere, emakumeak ez daude gizonen neurri berean ordezkaturik erabakitze-estamentuetan: hala, hiru euskal errektoreen artean soilik bat da emakumea eta, oro har, zuzendaritza-kontseiluetako postuetan nagusiki gizonak daude. Hala ere, idazkaritza nagusietan emakumeen presentzia handiagoa da.

Organo modura, **Euskadiko Unibertsitate Kontseilua**¹² ere nabarmendu behar dugu; gizon bat da kontseiluburua. Batzarrean ordezkariak orekatua da: 19 kidek osatzen dute, eta horietatik 9 emakumeak dira eta 10 gizonak.

⁹ Gobernu-taldearen datuak. 2020ko azaroko datuak, hemendik hartuak:<https://www.ehu.es/eu/web/idazkaritza-nagusia/gobernu-batzordea>

¹⁰ Gobernu-taldearen datuak. 2020ko azaroko datuak, hemendik hartuak:<https://www.mondragon.edu/eu/ezagutu-mu/gobernu-organoak>

¹¹ 2020ko azaroko datuak, hemendik hartuak:
https://www.deusto.eus/cs/ContentServer?pagename=Deusto/Page/Deusto_Cargos_Templat e&categoria=1&idCentro=4&cid=1340042365516&hizkuntza=eu&c=Page&localizador=3000527900:3000528066:1340042318705:1340042365516:&SITE=Deusto

¹² Datuak Hezkuntza Saileko Berdintasun Unitate Administrazioak eskaintakoak dira.

Horrez gain, **Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia (UNIBASQ)** gizon batek zuzentzen du, eta barne-egituran hainbat organo ditu. Besteak beste, Gobernu Kontseilua 14 kidek osatzen dute; horietako 4 emakumeak dira (% 28,6), eta Ahoku Batzordeak 11 kide ditu, horietako 5 emakumeak (% 45,5)¹³.

Hezkuntzaren kalitatea ebaluatzeko organoei dagokienez, EAEn funtzio horren organismo arduradun nagusia **ISEI-IVEI da, Hezkuntza Ebaluaziorako eta Ikerketarako Euskal Institutua**. ISEI-IVEI gizon batek zuzentzen du. Kontseilu Errektorean bederatzi kide daude, eta horietako hiru emakumeak dira (% 33,3). ISEI-IVEIko zuzendaritza-taldean bost kide daude, gizonazko zuzendari bat eta lau koordinatzaile, hiru emakumezko eta gizonazko bat. Batzorde Zientifikoan sei kide daude, eta osiera parekidea du¹⁴.

Azkenik, **Hezkuntza Ikuskaritzari** dagokionez, egoitza nagusi bat du Gasteizen eta hainbat lurralde-unitate, EAEko lurralde historiko guztietan. Honako taula honetan Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu horren osiera ikus daiteke hainbat kategoria eta lurraldetan¹⁵.

¹³ 2020ko azaroko datuak, hemendik hartuak: <https://www.unibasq.eus/eu/barne-antolakuntza/>

¹⁴ 2020ko azaroko datuak, hemendik hartuak: <https://isei-ivei.hezkuntza.net/eu/isei-ivei>

¹⁵ 2020ko irailean hartutako datuak, hemendik hartuak: <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-ikuskaritzaren-antolamendu-egitura/web01-a2hikus/eu/>

19. taula. EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren osaera, sexuaren arabera.

EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren osaera, sexuaren arabera.	Emakumeak	%	Gizonak	%	Guztira
Egoitza nagusia Lakua					
Ikuskaritza Nagusia	-	-	1	100	1
Gainerako langileak	2	66,7	1	33,3	3
Ikuskaritzaren Lurralde Unitatea: Araba					
Ikuskaritzaren Lurralde Burutza	-	-	1	100	1
1. eremua Vitoria-Gasteiz					
Ikuskari burua	-	-	1	100	1
Gainerako langileak	9	81,8	2	18,2	11
Ikuskaritzaren Lurralde Unitatea: Bizkaia					
Ikuskaritzaren Lurralde Burutza	-	-	1	100	1
1. eremua Durango					
Ikuskari burua	-	-	1	100	1
Gainerako langileak	6	60	4	40	10
2. eremua Getxo					
Ikuskari burua	1	100	-	0	1
Gainerako langileak	3	42,9	4	57,1	7
3. eremua Bilbo					
Ikuskari burua	1	100	-	-	1
Gainerako langileak	13	76,5	4	23,5	17
4. eremua Ezkerraldea					
Ikuskari burua	1	100	-	-	1
Gainerako langileak	6	60	4	40	10
Ikuskaritzaren Lurralde Unitatea: Gipuzkoa					
Ikuskaritzaren Lurralde Burutza					
1. eremua Donostia/Irun					
Ikuskari burua	-	-	1	100	1
Gainerako langileak	5	45,5	6	54,5	11
2. eremua Lasarte/Tolosa					
Ikuskari burua	-	-	1	100	1
Gainerako langileak	5	55,6	4	44,4	9
3. eremua Eibar					
Ikuskari burua	1	100	-	-	1
Gainerako langileak	2	50	2	50	4
GUZTIRA	55	58,5	39	41,5	94

Egileek egina, Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa-datuak oinarri hartuta (2020).

Hezkuntzako ikuskarrien artean emakumeen presentzia handiagoa da gizonezko ikuskariena baino (% 58,5 emakumeak, % 41,5 gizonak) eta ikuskari buruaren postuen banaketa parekidea da (4 emakume eta 4 gizon). Hala ere, lurralde-burutzetan ez dago emakumezko bururik, eta Ikuskaritza Nagusiko arduraduna gizon bat da.

b) Euskadiko ikastetxeak

Aurreko orrialdeetan garatutako analisia EAEn ikastetxeak zuzentzen dituzten langileen datuekin osatu behar da; izan ere, langile horiek, *de facto*, erabakitze gaitasun eta autonomia handia daukate ikastetxe bat antolatze arauak ezartzerakoan, eta garrantzi erabakigarria daukate hezkuntza-prozesuan zehar ikasleei arauak eta balioak transmititzeko. ISEI-IVEI erakundearen «Ikastetxeetako zuzendarien profila» azterlanaren arabera (2013. urteko datuak aztertu zituen), EAEn Lehen Hezkuntzako eta DBHko

ikastetxeetako zuzendarien % 61,5 emakumeak dira. Ikastetxe publikoetan,% 66,4 dira emakumeak; bestalde, ikastetxe pribatuetan edo itunpeko ikastetxeetan, zuzendarien % 55,9 dira emakumeak. Etapen arabera, Lehen Hezkuntzako ikastetxe gehienetan zuzendariak emakumeak dira (% 67,5); hala ere, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan proportzioa antzekoa da bi sexuen artean (% 51,6 emakumeak). Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan gizonezko eta emakumezko zuzendarien arteko ehunekoa orekatua den arren, esan daiteke emakumeek erantzukizun-lanpostuak izateak behera egiteko joera duela ikastetxeak ematen duen prestakuntza-mailak gora egiten duen heinean.

Lehenago ere esan den moduan, sektore honetako langileen feminizazioa argi dago Euskadiko hezkuntza-sistema osoan, bereziki Haur eta Lehen Hezkuntzan, Helduen Hezkuntzan eta irakaskuntza berezi batzuetan, LHko irakaskuntzetan izan ezik. Hala ere, zenbat eta altuagoa izan erreferentziako hezkuntza-maila, orduan eta txikiagoa da emakumeen presentzia, batik bat irakasle eta ikertzaileen artean.

2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Emakumeei eta gizonei eta bi horiei lotutako genero-estereotipo eta rolei dagozkien gizarte-arau eta balioak, izaera bitarra duen sexu-genero sistematik emandakoak, gainera, bizitzako edozein esparrutan gertatzen diren sexuagatiko desparekotasunen sustraian daude.

Hezkuntzaren esparruan, balioak transmititzea hezkuntza-erakundeen eta lan hori betetzen duten irakasleen DNAREN parte da, eta, balio horiek – indarrean dauden elementu sozial biziak dira– ez daude izaera patriarkaletik libre. Hezkuntza-prozesuan balio androzentrista eta patriarkal horiek transmititzearen garrantzia argia da; izan ere, hezkuntzak pertsonen egituratze-prozesua sustatzen du, adin goiztiarrenetatik sustatu ere, eta helduek, genero-identitate subjektiboa garatzea eta balio etiko eta afektiboak garatzea bultzatzen du, eta, aldi berean, taldean bizitzea, lotura egitea eta integrazio sozialerako ohiturak estimulatu ditu. Hala, balio-transmisio horrek rol erabakigarria jokatu du pertsonaren konfigurazioan, eta pertsona horrek, aurrerantzean, gainerako pertsonekin eta gizartearekin erlazionatzeko izango duen moduan. Horren haritik, gizarte-arau eta balio horien inpaktuari ere erreparatu behar zaio bai eskola-sistemari dagokionez (hezkuntza-erakundeak), bai hezkuntza-komunitateari dagokionez (irakasleak, ikasleak eta familiak).

a) Eskola-sistemak transmititzen dituen balioak eta arauak

Lehenago ere esan dugun moduan, eskola-sistemak jarraitzen du sexismoa eta genero-estereotipoak erreproduzitzen, egitura-mekanismoen sistema konplexu baten bidez (ikastetxeen antolaketa, eskola-curriculumak, lantzen diren eta lantzen ez diren materialak, espazioen egituraketa, jokabide-kodeak, etab.), baina baita lanabesen eta prozeduren bitartez (testuliburuak eta material didaktikoak, irakaskuntza-metodologiak) eta giza mekanismoen bidez ere (irakasleen jarrerak eta itxaropenak, orientazio akademikoa eta profesionala, hizkuntza, parekoen arteko harremanak, ikasle-irakasle harremanak eta irakasleen artekoak, etab.).

Curriculum akademikoa

Lehenik eta behin, curriculumari dagokionez, ikastetxeetan curriculum ofiziala (ikastetxeetan irakatsitako irakasgaiek osatzen dutena) eta beste curriculum ezkutatu bat elkartzeko dira, hain zuzen ere hezkuntza-prozesu osoan zehar transmititzen diren ezagutzek, balioek eta jarrerak osatzen dutena (ez da irakatsitako irakasgaietara mugatzen; askoz zabalagoa da), eta horrek eragin erabakigarria du neska eta mutilen genero-sozializazioan, modu bateratuan informatzen eta transmititzen dutelako gure gizartean emakume eta gizon izateak esan nahi duenez, haiengandik espero diren jokabide, rol eta jarrerak, baita sexuaren arabera lehentasunez eman zaien espazioari (publikoa edo pribatua) dagokionez ere.

Hezkuntzako curriculum esplizituak aztertu dituzten azterlan batzuek argi utzi dutenez, alde batetik, genero-berdintasuna –arau-esparruak babestu ohi du, EAEn gertatzen den moduan– ez da normalean curriculum esplizituan jasotzen (Suedian, Austrian, Finlandian edo Norvegian izan ezik), eta, bestetik, hierarkizatu egiten dira bai ikasten diren irakasgaiak, bai irakasgai batzuei eta besteei ematen zaien garrantzi sinbolikoa (irakasgai «garrantzitsuak») Zientziak, Matematika eta Teknologia dira, hain justu ere, mutilei gehien gustatzen zaizkienak eta lan produktibo edo ordainduarekin lotura sendoagoa dutenak). Halaber, badirudi curriculum esplizitu horiek balioa ematen dietela sozialki maskulinitasunarekin lotzen diren jazoerei, esperientziei eta ezagutzei, eta kanpo uzten dituztela historian zehar emakumeek gauzatu dituzten edo beraiekin lotura izan duten alderdiak, ezagutzak eta esperientziak.

Ez da arraroa, pentsatzen badugu zientzia ez dela neutroa genero-terminoetan, eta, historikoki, ezagutza zientifikoa batez ere gizonen kontrolatu, ekoitzi eta hedatu dutela, emakumeak aski prestatuta ez zeudela uste baitzen. Zientziak izaera androzentrikoa hartu du, eta horrek ondorio zuzenak izan ditu ezagutzaren transmisioan, ikastetxeetan. Hala, transmititzen jarraitzen den herentzia kulturalak emakumea baztertzen du historiatik zein ezagutzatik, oro har, eta ez du erakusten bizi kolektiboaren baldintzak hobetzen lagundu duten emakumeen adibiderik; hortaz, mutilek badituzte identifikatzeko figurak (gizonezko zientzialariak, artistak, nabigatzaileak, politikariak, eta abar), baina neskek ez daukate pareko emakumezko erreferenterik.

Nabarmendu behar da, bestalde, nahiz eta datuak ez diren behin betikoak eta epe luzearako eragina ezin dugun ezta sumatu, azken urteetan besteak beste STEAM programak diseinatu eta garatu direla, eta horien bidez Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan neska gazteen bokazio zientifiko-teknologikoak lantzea lortu nahi da, gertuko erreferenteak identifikatuz eta mentore-lana eginez.

Bestalde, badirudi gutxiago direla edo ia ez dagoela tradizionalki feminizatutako irakaskuntza-adar edo sektoreei lotutako bokazioa mutilengan «pizteko» ekimenik; hala, logika patriarkala ere hautsiz, zaintza-lana, pertsonen arreta ematea eta haien hezkuntza, adibidez, adin txikienetan, berdintasunez eta iraunkortasunez hazi nahi duen edozein gizarteren funtsezko pieza dela dioena.

Hezkidetza

Dagoeneko aipatu dugunez, hezkuntza generoari lotutako estereotipo eta aurreiritziak gainditzeko elementu nagusi bat da. Eskola eragile sozializatzailerak erabakigarria da, eta, testuinguru horretan, ikastetxeak behar-beharrezkoak dira ikasleen arteko botere-harremanak eraldatzen laguntzeko; horretarako, aldaketak egin behar dituzte indarkeriarik gabeko berdintasunezko

hezkuntza bat bermatzeko. Era berean, espazio aproposa dira ikasle guztiak existitzen diren sexu-identitate guztien aniztasunaren gaineko errespetuan sozializa daitezen.

Alabaina, eskolak ezin dio berak bakarrik aurre egin erronka handi horri. Eskolari gehiegizko karga jartzen zaio, arazo sozial guztien erantzun gisa hartzen baita. Beste eragile sozializatzaile batzuk eta gizarte osoa inplikatzeko lortu behar da. Ezinbestekoa da berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria saihestearen arloan esku-hartze globalak egiten jarraitzea.

Emakumeen eta gizonen arteko aukera- eta eskubide-berdintasunean eta berdintasunerako hezte (hezkidetza) lege- eta erakunde-agindu bat da, eta estrategiarik onena da edozein motatako genero-indarkeria saihesteko.

«EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratatu onaren bidean (2019-2023)»¹⁶ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari erantzutera zetorren hezkuntzari dagokionez. Hezkidetzaren egoera aztertzen du gure erkidegoan eta esku-hartzeen esparruetan landu beharreko zenbait arlo tematiko planteatu ditu (prestakuntza, baliabideak prestatzea, proiektuak eta jarduketak zehatzak diseinatzea, ebaluatzea eta jarraipena egitea, eta abar).

II. Hezkidetza Planean I. Hezkidetza Planean (2013-2017) ikastetxeetarako planteatu zen erronkari dagokionez jasotako datuen arabera, «eskola-elkarte osoaren atxikimendua lortzea, genero- indarkeriari aurrea hartzeko, kasuak lehenbailehen detektatzeko eta biktimei arreta egokia eta eraginkorra emateko», bada esan behar da ez dela lortu beste erronka eta helburuetan lortutako garapen- eta betetze-maila bera.

Azken urteotan gizartearen oro har gertatu den bezala, izugarri egin da aurrera berdintasunaren alorrean, baina oraindik ere asko dago egiteko, bereziki harremani eta indarkeria matxistaren prebentzioari dagokienez. Horretarako, beharrezkoa da hezkuntza-komunitate osoak esku hartzea eta laguntzea.

Horren haritik, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioari dagokionez, nabarmentzekoak dira Emakunderen Beldur Barik, Nahiko eta Gazteak Berdintasunean 2.0 programak eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak Hezkuntza Sailarekin batera prestatu duen Berdinu Eskolak programa. Azpimarratzekoak dira, halaber, aldundi eta udalek, ahalduz feministarako eskolek eta abarrek eskolei eskaintzen dizkieten egitasmoak, zeintzuei esker aberastu egin baita eskualdeetako Berritzeguneek antolaturiko hezkidetza-mintegiek egiten duten lana.

UPV/EHU, genero-indarkeria prebenitzeko Indartu eta Eraldatzen programak nabarmendu behar dira.

¹⁶ EAEko hezkuntza-sistemarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratatu onaren bidean (2019-2023).

Testuliburuak eta ikasmaterialak

Eskolaren ingurunean erabiltzen diren testuliburuak eta ikasmaterialek (oraindik eta etengabe berrikusten direnak argitaletxeetan) indartu egiten dituzte, oso modu sotilean, genero-estereotipo eta rol tradizionalak, testuliburu eta ikasmaterialen eduki eta ordezkagarritasun ikonografiko eta linguistikoetan, horretarako sexu-genero sisteman errotutako ikuspegia baliatuz, izaera bitarra eta heteroarautzailea duena.

Horren haritik, nabarmendu behar da ikasmaterial horiek prestatzen dituzten argitaletxeei maiz ez zaiela inolako jarraibide ofizialik ematen material horietan genero-ikuspegia txerta dezaten, eta, ondoren, material horiek hezkuntzaren kalitateari dagokionez ebalua ditzaten. Kontuan hartu beharreko beste faktore bat da ikasmaterialak aukeratzeko erabakia ikastetxearen zuzendaritzak hartu ohi duela.

Testuinguru horretan, planteatu da beharrezkoa izango litzatekeela indarrean dauden material didaktiko eta testuliburuaren analisi integrala egitea, zenbait gomendio prestatze aldera, hain zuzen ere argitaletxeek, materialak diseinatzeko batzorde zientifikoek eta bestelakoek aukera izan dezaten materialak genero-ikuspegia integratuta izango duen ikuspegitik diseinatzeko eta, horrez gain, EAEko fisionomia soziala modu egituratuagoan kontuan hartzen hasteko, hainbat aldagai kontuan hartuz, besteak beste, jatorri kulturala edo erreferentziakoa, aniztasun sexuala eta genero-aniztasuna, aniztasun funtzionala, eta abar.

Hizkuntzaren erabilera

Aurretik esandakoaren haritik, zalantza izpirik gabe hizkuntza da, ahoz zein idatziz, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan erabiltzen den kode nagusia. Izan ere, hizkuntzaren bidez ezagupenak, balioak eta jarrerak transmititzen dira, eta horri esker kontzeptuak osatzen dira, pentsamendua egituratzen da, eta, finean, munduaren eta subjektuaren beraren ikusmoldea eratzen da. Hori dela eta da garrantzitsua hizkuntzaren erabilera androzentriko batzuk aldatzen saiatzea.

Hizkuntzaren forma sexista batzuk zuzenean irakaskuntza-praktikan daude jasota, eta neskak sistematikoki baztertzea dakar, jarduera gaztelaniaz garatzen denean. Hain zuzen ere, bi sexuak hartzen dituzten kolektiboak izendatzeko maskulinoa erabiltzen da ohikotasunez eta arauz, baita gehiengoa emakumeak edo neskak direnean ere, edo taldean mutil bakarra dagoenean. Bai ahoz, bai ikasleei eta irakasleei zuzendutako testuliburuetan forma maskulinoa erabili eta horretaz abusatzeak beste sexuko pertsonen presentzia ezkutatzea eta isilaraztea dakar.

Euskararen kasuan, hizkuntzaren erabilera androzentrikoa ez da horren argia, pertsonentzako ez dagoelako genero gramatikalik; baina, hala ere, erabilera arrunteko kontzeptu eta hitz ugari ez dira inklusiboak eta/edo sexistak dira, eta baliteke egunerokotasunean berrikusi behar izatea.

Eskola-ingurunearen antolaketa eta espazioen banaketa eta erabilera

Espazioen banaketak eta erabilerak balio eta arau sozialak transmititzeko funtzio garrantzitsua dute, eta, horrela, eskola-curriculum ezkutua eraikitzen laguntzen dute. Ikasgela, jolastoki eta aisialdi-guneen nolakotasuna, espazio horien bat-bateko erabileran eta banaketan, okupazio- eta mugikortasun-terminoetan, eta leku horietan egiten diren jolas-motetan eta elkarrekintza-dinamiken hierarkian ere genero-eredu nagusiak finkatzen dira.

Hainbat azterlanetan agerian jarri da ikasle mutilek jolastokietako espazio nagusiak okupatzeko joera dutela, hedatzeko eta eremu handiagoak hartzeko joera; ikasle neskek baztertzeko dituzte, normalean bilduago egoten direnak, jarduera ez horren dinamikoetan eta jarrera pasiboagoetan, mugikortasun gutxiagokoak, kirolik egin gabe edo erabateko askatasunik gabe jolastuz. Ondorioz, ikastetxearen kudeaketan aintzat hartu beharreko alderdia da irakasleek duten inplikazioa espazioen artikulazioan, banaketan eta erabileran. Horren haritik, azken urteetan jolastokiak, gimnasioak eta bestelako espazioak fisikoki berrantolatu eta haien funtzionamendua antolatzeke garatutako hainbat egitasmo nabarmendu daitezke, hain zuzen ere generoak baldintzatutako bestelako erabilerak kontzienteki aztertzeke eta horiek gainditzeko saiatzeke, ikastetxeetan erabilgarri dauden espazioak modu parekidean erabiltzeko ikuspegitik.

Eskola-antolaketa eta kudeaketa

Jatorrizko gidan adierazi zen gisan, kudeaketak eta antolaketak ere eragina izan dezakete -eta oraindik eragina daukate- zenbait balio eta itxaropen transmititzean, ikasleak generoaren arabera bereiztean: ikasgelako jardueretan eta zerrendetan neskek eta mutilak bereiztea, kirol kolektiboetan taldeak sexuen arabera bereiztea, jarduerak modu bereizian esleitzea mutilei eta neskei ikasgelatik kanpo, janzkerari buruzko arauak (uniformean gona neskentzat, prakak mutilentzat), horiek guztiak generoa bereizteko nahita egindako «adierazleak» dira.

b) Hezkuntza-komunitatearen arauak eta balioak: irakasleak, ikasleak eta familiak

Bigarren dimentsio honetan «hezkuntza-komunitateari» lehentasunez erreparatu zaio; kontzeptu horrek irakasleei, ikasleei, familiei zein ikastetxeetako irakasle ez diren langileei (jantokia, atezaintza) egiten die erreferentzia.

Argi dago **irakasleek** betebeharrak erabakigarria dutela gazteek genero-rolak ulertu eta «beregantzeko» moduan. Eguneroko lanean irakasleak egoera ezin hobean daude genero-estereotipoak zalantzan jartzea eta pentsamendu kritikoa sustatzeko; hala, ezinbestekoa da irakasleek prestakuntza egokia izatea eta genero-gaiei buruzko informazioa sarbidea izatea, eta, aldi berean, haien genero-rol propioen jakitun ere izatea, elementu argia baita ikastetxeetan genero-estereotipoak errepikatzeke edo, ostera, horiekin hausteko. Horren haritik, geure buruari galdetu behar

diogu zein neurritan daukaten irakasleek aski oinarrizko prestakuntza planteatzen diren bazterketen jakitun izaten saiatzeko, berdintasun- eta aniztasun-terminoetan erreferenteak eraikitzen lan egiteko, ikasleak modu parekidean tratatzeko neska-rol edo itxaropen jakin batzuetara eta mutilak beste batzuetara lotu gabe, eta abar.

Ikasleei dagokienez, nabarmendu behar da ikasleek ikastetxeko ezkutuko curriculumean eta genero-rol eta estereotipoak transmititzen duten eragina ere erabakigarria dela. Ikasleak genero-rol eta estereotipoen «gordailuzain» izan daitezke eta, aldi berean, rol eta estereotipo horien «sortzaile». Hezkuntza-administratziotik azken urteetan ahalegina egin den arren, eta gizarteak berak ere bilakaera izan badu ere, hainbat azterlanetan agerian jarri da populazio gazteenen artean ere balio sexistek irauten dutela, eta eragin nabarmena dutela, beste dimentsio batzuen artean, prestakuntzen hautuan eta hautu profesionalean. Neska eta mutil gazteek desparekotasunen gainean eraikitako harremanak izaten jarraitzen dute, kasu askotan genero-indarkeriari eusten dioten sinesmen eta jarrerak lotuz.

Hala, «Gazteria eta generoa barometroa» lanean (2019) azaldu zenez, 15 eta 29 urte arteko nesken % 26,2k eta mutilen % 40,9k adostasun-maila altua adierazi zuten «mutil batek bere neska-laguna babestu behar du» esaldiari dagokionez, eta nesken % 16,7k eta mutilen % 27,1ek «harreman sentimental batean normala da jeloskortasuna egotea, jeloskor egotea maitasun-froga bat baita» esaldiari dagokionez; azkenik, nesken % 7,8k eta mutilen % 21,7k adostasun-maila altua agertu zuten «neska bat erabat gauzatua sentitzeko bikotekide baten maitasuna behar du» esaldiarekiko. Hala ere, «bikote batean ezinbestekoa da bakoitzak bere espazioa izatea» esaldiari dagokionez adostasun handia agertu zuten nesken % 73k eta mutilen % 55,1ek.

Azkenik, ezinbestekoa da **familiek** hezkuntzan duten betebeharra aintzat hartzea, etxean zein ikastetxean parte hartuz. Gurasoen babesa ezinbestekoa da ikastetxeetan genero-berdintasuna sustatzeko, eta hortaz, familiak eta ikastetxeak harremanak izateko esparru eraginkorra artikulatu behar da, eta espazioak eta aukerak sortu behar dira ahotsa eta ordezkagarritasuna izan dezaten. Harreman horren berezko zailtasunetako bat da maiz ikastetxeko zuzendaritzek edo irakasleek ez dutela sentsibilitaterik genero-berdintasunarekiko, edo ez dutela horren inguruko prestakuntzarik jaso; hortaz, beharizan horren inguruko kontzientziarik ez dutenez, zaila da familiei orientazioa ematea edo familiek horretan inplikatzeko lortzea.

Testuinguru honetan, nabarmendu behar da seme-alaben hezkuntzan eta eskolatzeko-prozesuetan amen esperientzia berariaz izatea beharrezkoa dela, baita horretan parte hartu duten aitena ere; hala, arretaz erreparatu beharko zaio familien eta ikastetxeen arteko parte-hartzeko eta harremanen ereduari, hain zuzen ere parte-hartze parekidearen balioetan eta erantzunkidetasunean sakontzeko gauza izango den ereduari, baita balio horiek modu argian ikasleei eta, oro har, hezkuntza-komunitateari transmititzen sakontzeko gauza ere.

2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
<p>Pertsonaren garapen integralean oinarritutako hezkuntza-eredua lortzea, alde batera utziz sexuaren araberako estereotipoak eta rolak, bereizkeria-mota oro eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzen duena; horixe da politika publikoen helburua. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrean.</p>	<p>28. art., 4/2005 Legea. 3.2 HE VII. EGBP.</p>
<p>Oinarizko eskubide eta askatasunak errespetatzean eta emakumeen eta gizonen arteko aukera- eta eskubide-berdintasuna errespetatzean heztea helburuen artean txertatzea hezkuntza-sistemaren betebeharra da. Hezkuntza-sistemak kalitate-printzipioen artean izango ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarria eragozten duten oztopoak ezabatzea eta batzuen zein besteen artean berdintasun osoa suspertzea.</p>	<p>23. art., 3/2007 LO 4.1 art., 1/2004 Legea</p>
<p>Hezkuntza Administrazioak hezkidetzako proiektuak sustatuko ditu, eta jarraian aipatzen diren hezkidetzahelburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean:</p> <p>a) Emakumeei eta gizonari esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturetan oinarrituta eraiki diren sexuaren araberako aurreiritzi, estereotipo eta rolak ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukera eskaintzeko.</p> <p>b) Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea; horretarako, eta irakasten diren edukiak berrikusiko dira eta, hala dagokionean, zuzendu.</p> <p>c) Beharrezko diren ezagutzak sartzeko, ikasleek, neskek zein mutilak, etxeko lanen eta pertsonak zaintzearen arloan gaur egun dituzten eta etorkizunean izan ditzaketen beharrian eta erantzukizunen ardura har dezaten.</p> <p>d) Ikasleak trebatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak.</p> <p>Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonen eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak-ereduak ere.</p>	<p>29.1 art., 4/2005 Legea, 24.1 art., 3/2007 LO. 3.2 HE VII. EGBP. 1.1.4 HO VII. EGBP. 3.2.1 HO VII. EGBP. 3.2.2 HO VII. EGBP. 3.2.3 HO VII. EGBP.</p>

<p>Era berean, Hezkuntza Administrazioak oinarriko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdi eta edukiak integratuko dira: etxearekin, pertsonen zainketaarekin, harreman pertsonalen funtzionamendua ezagutzearekin, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzareduak ikastearekin.</p>	<p>29.2 art., 4/2005 Legea. 4.2-4.6 art., 1/2004 Legea. 6.3 HE VI. EGBP</p>
<p>Debeku da Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan egin, zabaldu eta erabiltzea pertsonak, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun txikiagoa edo handiagoa dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen testuliburu edo material didaktiko oro, bai eta emakumeen kontrako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo horretara bultzatzen duen oro ere.</p>	<p>30.1 art., 4/2005 Legea.</p>
<p>Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburuak eta irakaskuntzako beste material guztiak hezkidetzako helburuak barneratuta izan behar dituzte. Bestalde, ez dute hizkuntza modu sexistan erabili behar, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua bermatu behar dute.</p>	<p>30.2 art., 4/2005 Legea. 24.2.b) art., 3/2007 LO 6. art., 1/2004 Legea 3.2 HE VII. EGBP.</p>
<p>Beren zereginetan genero-ikuspegia integratzeko, hezkidetzan trebakuntza zehatza jaso duten langileak izango dira hezkuntzaren arloa ebaluatu, ikertu eta berritzeaz arduratzen diren organoetan eta irakasleen laguntzarako zerbitzuetan.</p> <p>Hezkuntza administrazioak bultzatzea emakume zein gizon irakasleek presentzia orekatua izatea jakintza-arlo eta hezkuntzako etapa guztietan eta ikastetxeetako zuzendaritza-organoei.</p> <p>Irakasleek ikastetxeen zuzendaritza-organoei jakitera eman behar diete emakumeen eta neskatila-mutikoen aurka nabaritzen duten indarkeria-zantzu oro.</p>	<p>31. art., 4/2005 Legea. 24.2.d) eta e) art., 3/2007 LO 14. GO VII. EGBP 2.3.2 HO VII. EGBP. 4.1.4 HO VII. EGBP</p>
<p>Ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarrak gertatzen direnean jarduteko gidan jasotako jardun-protokoloan ezarritakoa aplikatzea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak prestatutakoa, ikasle neskaren batek tratu txarrak pairatzen dituela –une horretako edo iraganeko harreman baten testuinguruan– jakinez gero, edo hala pentsatzeko susmo argia izanez gero, edo ikasle (neska zein mutil) batek indarkeria sexuala aplikatzen badio, EAeko ikastetxe baten.</p>	<p>7. atala Etxean tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakundeen arteko II. Akordioa</p>

<p>Beharrezko neurriak hartzea bermatzeko eskola-kontseiluek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra sustatzen duten hezkuntza-neurriak hartzea bultzatuko dutela, eta bermatzea, helburu berarekin, Estatuko Eskola Kontseiluan ordezkaritza izango dutela Emakumearen Institutuak eta emakumeen interesak defendatzen dituzten erakundeek, Estatu osoan hedatuz.</p>	<p>8. art., 1/2004 Legea</p>
<p>Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek, urtebeteko epean, hezkuntza ebaluatu, ikertu eta berriztatzeko ardura duten organoen eta irakasleei laguntzeko zerbitzuen lanpostu zerrenda aldatzeko behar diren administrazio-prozedurak hasiko dituzte; horretarako, hezkidetzaren arloko gaikuntza behar duten plazetarako beharkizun bereziak txertatuko dira.</p>	<p>Hirugarren xedapen gehigarria, 4, 4/2005 Legea.</p>
<p>Emakumeek eta gizonek aukera berdinak izan ditzaten bultzatzea, bai irakasle-karreran, bai erabakiak hartzen diren eremuetara sartzeko; eta, horrekin batera, ikasleek, sexuaren arabera, euskal unibertsitate-sistema osatzen duten unibertsitateetako diziiplina eta jakintza-arlo guztietan partaidetza orekatua izan dezatela sustatzea.</p>	<p>33.1 art., 4/2005 Legea 25.1 art., 3/2007 LO</p>
<p>Orobat, bermatuko dute jakintza-arlo guztietako irakaskuntzan eta ikerketa-lanetan genero-ikuspegia txertatzen dela, hizkera ez-sexista erabiltzen dela, eta emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egindako garapen sozial eta historikoa jasotzen dela.</p> <p>Euskal unibertsitateek modu egonkorrean eskaini dezatela emakumeen eta gizonen berdintasunerako agente izateko prestakuntza berezia, eta genero ikuspegia txertatu dezatela beren diziiplina eta jakintza-arlo guztietan.</p>	<p>33.2-3. art., 4/2005 Legea 25.2 art., 3/2007 LO 4.7 art., 1/2004 Legea</p>
<p>Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde dauden eta hori sustatzen duten pertsonak gero eta gehiago izatea, batik bat adingabeez arduratzen direnak edo adingabeentzako erreferentzia direnak (irakasleak, ahaideak, zaintzaileak, begiraleak, eta abar).</p>	<p>3.2 HE VII. EGBP.</p>
<p>Ikasketak aukeratzean, sexuen arteko ezberdintasun kuantitatiboa murriztea, sexu-bereizketa handiena dutenei eta laneratzeko aukera handiena dutenei lehentasuna emanez.</p>	<p>3.2 HE VII. EGBP.</p>

3. LEGEDIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKOA
<u>4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako</u>
<u>10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa</u>
<u>1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa</u>
<u>3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena</u>
<u>11/2009 Dekretua, urtarrilaren 20koa, Gradu, Master eta Doktorego tituluak lortzeko gauzatu behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzkoa.</u>
<u>237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.</u>
<u>236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.</u>
<u>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana</u>
<u>Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa</u>
<u>Gobernu-programa XII. legegintzaldirako</u>
<u>Euskadin Soldata Arrakala murrizteko Estrategia eta Plan Operatiboa</u>
<u>Hezkuntza Sailaren HEZIBERRI 2020 plana, hezkuntza-sistema hobetzeko</u>
<u>Lanbide Heziketako V. Euskal Plana 2019-2021</u>
<u>2019-2022 Unibertsitate Sistemaren IV. Plana</u>
<u>EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023).Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. 2019.</u>
ESTATUKOA
<u>8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duena</u>
<u>6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateena.</u>

5/2002 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa.

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzkoa.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako

4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duena.

8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntza-kalitatea hobetzeko.

3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.

EUROPAKOA

2002/73/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2002ko irailaren 23koa, Kontseiluaren 76/207/EEE Zuzentaraua aldatzen duena, enplegua lortzeari, prestakuntzari eta sustapen profesionalei eta lan-baldintzei dagokienez, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa.

Genero-berdintasunerako Estrategia, 2020-2025. Europako Batzordea.

Europako Parlamentuaren Ebazpena, emakume gazteek eta neskek hezkuntza-arloan jasaten duten diskriminazioari buruzkoa (2006/2135(INI)).

Ministro Batzordearen CM/Rec (2007) 13. gomendioa estatu kideei, hezkuntzaren alorrean genero-ikuspegia aintzat har dezaten.

Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2008ko maiatzaren 21ekoa, emakumeei eta zientziari buruzkoa (2007/2206(INI)).

Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumearen aurkako indarkeria prebenitzeko eta horren aurka borrokatzeko, 2011ko maiatzaren 11n egina, Istanbulen.

OHARRA: Hezkuntzaren eremuko berdintasun-agindu espezifikoek gain, modu orokorrean sektore guztietan aplikagarri diren berdintasunari buruzko aginduak ere aztertu behar dira; horiek guztiak, generoaren araberrako eraginari buruzko txostenak egiten lagundu duten materialetako [alderdi juridikoei buruzko dokumentuan](#) aurki daitezke.

4. DATU-ITURRIAK

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAK OTASUNA
<ul style="list-style-type: none"> • EAEn matrikulatutako ikasleak, titulartasunaren, mailaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2018/2019 • EAEn araubide orokorreko eta helduen hezkuntzako ikasketetako ikasleak lurralde historikoaren, titulartasunaren eta sexuaren arabera. 2007/2008-2018/2019 • EAEn Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak, graduka eta familia profesionalka, eta lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2018/2019 • Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleak, sexuaren, mailaren, lurralde historikoaren eta titulartasunaren arabera. 2018/2019 	<p><u>Eskola Jardueraren Estatistika Eustat (2020)</u></p>	<p>Urtekoa</p>
<ul style="list-style-type: none"> • EAEko unibertsitateetan matrikulatutako ikasleak, zentroaren titulartasunaren eta ikasketa-adarraren arabera sailkatuta, eta ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera bereizita. 2019/2020 • Euskal Herriko Unibertsitatera sartzeko probetan aurkeztutako ikasleak, sexuaren, zentroaren titulartasunaren eta lurralde historikoaren arabera, deialdiaren, gaitututakoaren ehunekoen eta batez besteko notaren arabera bereizita. 2019 • EAEko unibertsitateetan graduko ikasketetan matrikulatutako ikasleak, titulazioaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2018/2019 	<p><u>Unibertsitate-estadistika. Eustat (2020)</u></p>	<p>Urtekoa</p>
<ul style="list-style-type: none"> • EAEko 10 urteko eta gehiagoko biztanleriaren analfabetismo-tasak, adinaren eta sexuaren arabera. 2019 • Egokitasun-tasa EAEko unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleen adin adierazgarrietan, adinaren, sexuaren eta epealdiaren arabera. 2018/2019 	<p><u>Hezkuntzako Estadistikak. Eustat (2020)</u></p>	<p>Urtekoa</p>

<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza-prestakuntza goiz uztea, autonomia-erkidegoaren, sexuaren eta epealdiaren arabera. 2019 • Batxilergo arrunteko lehen mailako ikasleen ehunekoa, ikasmaila bukatu dutenak, promozio-motaren, sexuaren, autonomia-erkidegoaren edo probintziaren, zentroaren titulartasunaren eta modalitatearen arabera. 2017/2018 • Batxilergo arrunteko bigarren mailako ikasleen ehunekoa, ikasmaila bukatu dutenak, sexuaren, autonomia-erkidegoaren edo probintziaren, zentroaren titulartasunaren eta modalitatearen arabera. 2017/2018 • DBHn matrikulatutako ikasleak, titulartasunaren, sexuaren, autonomia-erkidego edo probintziaren eta ikasturtearen arabera. 2018/2019 • EAEn mailaz igotzen diren DBHko ikasleak, sexuaren arabera. 2018-2019 ikasturtea • Batxilergoan araubide arruntean matrikulatutako ikasleak, sexuaren, autonomia-erkidego edo probintziaren eta ikasturtearen arabera. 2018/2019 • DBHko ikasle errepikatzaileak, titulartasunaren, sexuaren, autonomia-erkidego edo probintziaren eta ikasturtearen arabera. 2018/2019 • Araubide arrunteko Batxilergoko ikasle errepikatzaileak, titulartasunaren, sexuaren, autonomia-erkidego edo probintziaren eta ikasturtearen arabera. 2018/2019 • Batxilergoan matrikulatutako ikasleak, titulartasunaren, sexuaren, autonomia-erkidego edo probintziaren, ikasturtearen eta modalitatearen arabera. 2018/2019 • Araubide bereziko ikasketetan matrikulatutako ikasleak, sexuaren, autonomia-erkidego edo probintziaren eta irakaskuntzaren arabera. 2018/2019 	<p>EUSTAT Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak</p> <p>Euskal AEko igarotako en portzentajea, araubide orokorreko irakaskuntzan, mailari jarraiki, ezaugarrien arabera Eustat (2020)</p>	<p>Urtekoa</p>
--	---	--------------------------------

<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitate publikoetako zentro propioetako irakasle eta ikertzaileak, autonomia-erkidegoaren, sexuaren, langile-motaren eta irakaskuntza-adarraren arabera. 2018/2019. 	Unibertsitateen zerbitzuan dauden pertsonen estatistika Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa (2020)	Urtekoa
<ul style="list-style-type: none"> • 16 urte eta gehiago dituzten EAEko biztanleen jarduera-tasa, hiruhilekoka, bukatutako ikasketen mailaren arabera (%) (1). 2019 • 16 urte eta gehiago dituzten EAEko biztanleen okupazio-tasa, hiruhilekoka, bukatutako ikasketen mailaren arabera (%) (1). 2019 	Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. Eustat (2020)	Urtekoa
<ul style="list-style-type: none"> • Eskolatzetasa gordinak sexuaren arabera EAEn. 2016-2017 ikasturtea. 	«Zifrak 2018» txostena Emakumeak eta gizonak Euskadin. Emakunde (2018)	Urtekoa
<ul style="list-style-type: none"> • EAEko unibertsitateetan ikasketak 2016an bukatu zituzten pertsonen laneratzeari buruzko datuak. • EAEko unibertsitateetan ikasketak 2016an bukatu zituzten pertsona landunen enpleguari buruzko datuak. 	EAEko unibertsitateen 2019ko lan munduratzeari buruzko txostena. Lanbide (2019)	Irregularra
<ul style="list-style-type: none"> • Jarduera-tasa, okupazio-tasa eta langabezia-tasa, sexuaren arabera. 	Lan-egoera 2018ko abenduan. LH 2017 promozioa. Lanbide (2018)	Irregularra
<ul style="list-style-type: none"> • Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako gizonetako eta emakumezko zuzendarien profil pertsonala, sexuaren, adinaren eta titulazio akademikoaren arabera, etapaka eta zentroen sarearen arabera. 2013. urtea. 	Ikastetxeetako zuzendarien profila. ISEI-IVEI (2015)	Irregularra
<ul style="list-style-type: none"> • UPV/EHUko irakasleak eta ikertzaileak kategorien arabera. 2020. urtea. 	UPV/EHUren gardentasun-ataria (2020)	=

<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzuen hainbat sektoretan okupatutako langileak, sexuaren eta jardueraren arabera A86 (EJSN 09). 	<u>Zerbitzuen Inkesta 2009</u> EUSTAT	Bost urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Batez beste eskaintako denbora soziala, funtzioen eta sexuaren arabera. • Araubide bereziko irakaskuntzan matrikulatutako ikasleak, modalitatearen eta sexuaren arabera. • Erdi-mailako LHn matrikulatutako ikasleak, adarraren eta sexuaren arabera. • Goi-mailako LHn matrikulatutako ikasleak, adarraren eta sexuaren arabera. • Unibertsitatean-karrera eta -lizentzian matrikulatutako ikasleak, sexuaren arabera. • Ikasgeletan emakumeen ehunekoen bilakaera, karreraren arabera. 	<u>«Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko 2010eko Zifrak» txostena</u> Emakunde	Urtekoa
<ul style="list-style-type: none"> • Kirol-elkarteetan parte-hartze motak, sexuaren arabera. 	<u>Elkartegintza EAEn, 2004</u> Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea	Maiztasunik gabe
<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eta gizonen agerpen-kopurua sekzioen arabera. • Emakumeen eta gizonen agerpen-denbora sekzioen arabera. 	<u>Emakumeek eta gizonek EITBko albistegietan dituzten protagonismo eta errepresentazioari buruzko azterlana</u> Aztiker	Maiztasunik gabe

5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK

AZTERLANAK ETA TXOSTENAK

- Angulo, A., Caño, A. eta Elorza, C. (2017). Genero-berdintasuna Lehen Hezkuntzan eta DBH-n euskadin. ISEI-IVEIk argitaratua.
- Cipriani, N. eta Senovilla, J. (2019). Análisis de los fenómenos que contribuyen a perpetuar, o modificar, la discriminación de las mujeres en los campos de las matemáticas y la física. Emakundek argitaratua.
- Díaz, M^a J. (zuz.) (2012). La juventud universitaria ante la igualdad y la violencia de género. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioak argitaratua.
- Díaz, M^a J. (zuz.) (2013). La evolución de la adolescencia española sobre la igualdad y la prevención de la violencia de género. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioak argitaratua.
- Emakunde (2005). Hezkidetza Euskal Autonomia Erkidegoan. Bilakaera eta etorkizuneko estrategiak.
- Emakunde (2016). Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioaren eragina, Euskal Autonomia Erkidegoko batxilergoko 2. mailako ikasleek goi-mailako prestakuntza-ibilbidea hautatzerakoan.
- Emakunde (2018). «Zifrak 2018» txostena. Emakumeak eta gizonak Euskadin.
- Emakunde. NAHIKO Programa, berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza bultzatzeko hezkidetza programa.
- Esteban, M. L., Bullen, M., Díez, C., Hernández, J. eta Imaz, E. (2016). Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: jóvenes y relaciones de género en el País Vasco. Emakundek argitaratua.
- Droga Mendekotasunaren aurka Laguntzeko Fundazioa (2019). Gazteria eta generoa barometroa 2019. Identidades y representaciones en una realidad social compleja.
- EDE fundazioa (2018). EAEko emakumeen kontrako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. 2017ko datu estatistikoak.
- ISEI-IVEI (2014). Ikastetxeetako zuzendaritzen profila.
- Linares, E. (2019). El iceberg digital machista: Análisis, prevención e intervención de las realidades machistas digitales que se reproducen entre la adolescencia de la CAE. Emakundek argitaratua.
- Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa (2018) PISA 2018 txostena. Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa. Espainiako txostena.
- RED2RED Consultores (2009). El cambio lingüístico en la educación en los últimos 25 años en España.